



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko abenduaren 11

151. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2016ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2016ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko azaroaren 27an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak 2016ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 157.2. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. 2016ko Nafarroako Kontu Orokorren azterketa eta zentsurari buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostena Nafarroako Gobernuari igortzea.

4. Ogasuneko eta Finantza Politikako Bartzordea deitzea, Kontuen Ganberako lehendakariak ager dadin, egindako txostena azaltze aldera.

5. Erabaki hau Kontuen Ganberari jakinaraztea.

Iruñean, 2017ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

2016ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruzko txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (4. or.).

II. Iritzia (6. or.).

II.1. 2016ko urteko kontuei buruzko auditoria finantzarioko iritzia (7. or.).

II.2. Legezketasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (8. or.).

III. Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuen laburpena (2016ko ekitaldia) (9. or.).

III.1. 2016ko aurrekontuaren likidazioa (9. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta (10. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2016ko abenduaren 31n (10. or.).

III.4. 2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (11. or.).

III.5. 2016ko emaitzen kontua (12. or.).

IV. Ondorioak eta gomendioak (14. or.).

IV.1. Foru sektore publikoaren zedarritzea, 2016an (14. or.).

IV.2. 2016ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrak (18. or.).

IV.3. Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoera (18. or.).

IV.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak (23. or.).

IV.5. Kontuen Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (28. or.).

IV.6. Langile-gastuak (29. or.).

IV.7. Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak (32. or.).

IV.8. Transferentzia arruntengatiko gastuak eta kapital-transferentziengatiko gastuak (35. or.).

IV.9. Inbertsioak eta ibilgetu ez-finantzarioa (39. or.).

IV.10. Zergak, tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak (42. or.).

IV.11. Bestelako diru-sarrerak (48. or.).

- IV.12. Zordunak (50. or.).
- IV.13. Diruzaintza (52. or.).
- IV.14. Zorpetzea eta beste finantza-eragiketa batzuk (53. or.).
- IV.15. Sozietate eta Fundazio Publikoak (57. or.).
- IV.16. Ingurune teknologikoa (61. or.).
1. eranskina. Nafarroako Gobernuaren eta haren enpresa publikoen publizitate instituzionala eta turismoko publizitatea kontratatzea (62. or.).
2. eranskina. Aberaste bidegabearen egoeran kontratatzea (70. or.).
- 2016ko Kontu Orokorraren oroitidazkiaren laburpena.
- (Oharra: Aipatutako Kontu Orokoraren oroitidazkia foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako bere jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrek fiskalizatu ditu. Honako hauek dira kontu horien funtsezko osagaiak: data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta oroitidazkia.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioa planifikatu eta egin dugu, honako honi buruzko iritzia eman ahal izateko: ea Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Gobernuari 2016an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 1/2016 Foru Legea, urtarrilaren 29koa, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 13/2000 Foru Lege Orokorra, abenduaren 14koa, tributuei buruzkoa.
- 28/1990 Foru Legea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duena.
- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.
- 135/2016 Foru Agindua, azaroaren 11koa, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak emana, 2016ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrek eta Balantze Kontuak ixteko eta likidatzeko eta 2017ko ekitaldia irekitzeko arauak onesten dituena.
- Indarra duen araudi sektoriala.

Txostena lau epigrafetan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko ekitaldiko urteko kontuen gaineko iritzi finantzarioa eta legedia betetzeari buruzkoa ematen dugu; hirugarrenak, kontabilitateko egoera-orri nagusien laburpen bat biltzen du. Laugarren epigrafean, azkenik, egindako lanetik ateratako zenbait ondorio eta gomendio jaso ditugu honako hauek direla-eta: Foru Sektore Publikoaren osaera, 2016ko abenduaren 31ko aurrekontu- eta finantza-egoera, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioen betetzea, Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendio nagusien jarraipena, beste kudeaketa arlo garrantzitsu batzuk, eta enpresen eta fundazioen sektore publikoa.

Ganbera honen aurreko txostenekin alderatuta berritasun gisa atal bat sartu dugu laugarren epigrafean, zeinean azterketa orokor bat egiten baitugu kudeaketa ekonomiko-finantzariorako informazio sistemai buruz eta Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak informazioaren teknologien gainean egindako kontrolei buruz (IV.16 atala).

Txostenarekin batera, Nafarroako 2016ko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak egindako oroitidazkiaren laburpena ageri da. Haren testu osoa hemen ikus daiteke:

https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Presupuesto/Cuentas/Cuentas+2016/

Txostenak bi eskari parlamentarioren babesean egindako lanari buruzko ondorioak jasotzen ditu: Nafarroako Gobernuak eta haren enpresa publikoek 2016an egindako publizitate instituzionalaren eta turismoa publikitatearen kontratazioari buruzkoa da bata (1. eranskina), eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan

Osasunaren Institutuaren kontratuen denbora-balioari buruz eta kontratu horiek antolamendu juridikoaren arabera izateari buruzkoa bestea (2. eranskina).

Gure lanean, kontuan hartu ditugu, gainera, Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuak egindako txostenak.

Foru sektore publikoa osatzen duten gainerako sektoreetarako, honako alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Nafarroako Parlamentuaren 2016ko urteko kontuak, Nafarroako Arartekoarenak eta Nafarroako Kontseiluarenak Kontuen Ganbera honek aztertu ditu.
- Kontuen Ganberaren beraren 2016ko urteko kontuak auditoriako enpresa batek aztertu ditu.
- Sozietate eta fundazio publikoen urteko kontuak auditoriako enpresa pribatu batzuek auditatzen dituzte.

Aurreko txosten horien guztien iritzi profesionala eta ondorio nagusiak aztertu ditugu.

Halaber, Kontuen Ganberak egindako txosten hauek hartu ditugu kontuan:

- Nafarroako Ospitaleguneko farmakoen kudeaketa.
- O-NOZek 2016an egindako aldi baterako kontratazioa, zeina hemendik gutxira argitaratuko baita.

Azterketa lana 2017ko maiatza eta iraila bitartean egin dute auditoriako sei teknikaririk eta auditore batek osatutako lantalde batek, eta Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzan ere izan dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, haren erakunde autonomoetako eta haren sozietate publiko eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak ezagutzera eman ziren, Nafarroako Gobernu Kontuaren Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko kontseilariak alegazioak aurkez zitzan.

Aipatutako departamentuak ez du alegaziorik aurkeztu Kontuen Ganberak ezarritako epearen barnean.

II. IRITZIA

Nafarroako 2016ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditugu. Haien kontabilitateko egoera-orriak modu laburtuan jaso ditugu txosten honen III. epigrafean; oroitidazkia, berriz, osorik erantsi dugu.

Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua da urteko kontuak formulatzeko eta aurkezteko ardura duena, eta kontu horiek halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden urteko kontuak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

Nafarroako 2016ko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua 2017ko ekainaren 28ko erabakiaren bitartez onetsi zuen Nafarroako Gobernuak, eta Nafarroako Parlamentura igorri zuen. Parlamentuak, Mahaiaren irailaren 4ko erabakia tarteko, Kontuen Ganberara igorri zuen.

Urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2016ko urteko kontuei buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin dezagula ere, honako helburuarekin: urteko kontuetan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko urteko kontuetan adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak urteko kontuak egin ditzan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta urteko kontuen aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure iritzia funtsatzeko.

II.1. 2016ko URTEKO KONTUEI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenekin

a) Ganbera honek bere aurreko txostenetan behin eta berriz esan duen moduan, ez dira aplikatzen beren zabaltasun guztiarekin Kontabilitate Publikoaren 2010eko Plan Orokorrean, jasota dauden kontuak, irizpideak eta printzipioak, nagusiki zergen, zordunen, tributu-hartzekodunen eta ibilgetuaren kontabilitate-tratamendu egokia egitekoak. Horrekin batera kontuan hartu beharra dago disfuntzio batzuk badaudela, batetik, hirugarrenen kontabilitate lagungarriaren eta tributu kudeaketaren (CAT-GT) eta, bestetik, SAPGE21 kontabilitate sistemaren artean, eta, halaber, garrantzi txikiagoa duten beste akats batzuk badaudela, kontuak edo epigrafeak sailkatzerakoan; horrek berekin dakar diru-sarreraren aurrekontuaren likidazio-egoeraren egitura, aurrekontu-emaizarena, diruzaintzako gerakinarena eta balantzearena bat ez etortzea aipatutako kontabilitate-araudian ezarritako ereduekin, eta aurreikusitako egoera-orri guztiak ere ez jasotzea.

b) Balantzean ez dira erregistratu Foru Komunitateko Administrazioaren langile funtzionario jardunekoak eta pasiboan montepioek sortutako betebeharrak aktuarialak, eta memoriaan ere ez dago horiei buruzko informaziorik. Nafarroako Gobernuak egindako azterlan eta balioespenen arabera, montepio horren prestazioak direla-eta 2017-2087 aldirako kostua 2.079 milioi euro konstante ingurukoa izanen da.

c) Egoeraren balantzean, ezin izan dugu lortu ebidentziarik "Ibilgetu materialen" kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasunari buruz –saldo hori 2.218,3 milioi eurokoa zen 2016ko abenduaren 31n–, zeren eta hura ez baitago babestuta aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -irizpideen arabera egoki baloratutako ondasunen inbentario orokor batean.

Auditoria finantzarioko iritzia

Gure iritzian, "Iritzi finantzarioaren oinarria, salbuespenarekin" atalaren a) eta b) paragrafoetan deskribatutako egitateen eraginengatik ez bada eta c) paragrafoan norainokoaren mugak izan ditzakeen eraginengatik ez bada, erantsitako urteko kontuek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuetako printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

Azpimarra-lerrokada

Arreta deitu nahi dugu kontu orokorrean jasotako honako alderdi hauei buruz, zeinek eraginik ez baitute emandako iritzian:

- 2015eko Hitzarmen Ekonomikoaren arabera Nafarroako Gobernuak Estatuari egin beharreko ekarpen ekonomikoaren zehaztapena (2015-2019 bosturtekorako oinarri-urtea) dela-eta, desadostasun bat sortu da bien artean, zeinak berekin ekarri baitu Foru Komunitateak 2016ko abenduan 82,55 milioi euro gutxiago ordaintzea Estatuak uste zuena baino.

Gaur egun zain gaude Batzorde Koordinatzaileak 2015eko ekarpena (oinarri-urtea) noiz ezarriko, hartara dauden desadostasunei konponbidea emateko; une horretan, izan ere, 2015eko eta 2016ko behin betiko likidazioak eginen dira. Kontu Orokorren oroitidazkiaren arabera, kalkulatu da 2015ean eta 2016an likidatutako fluxuen erregularizazioa Nafarroaren aldekoa izanen dela.

- Aurrekontu-emaizta ez-finantzarioa negatiboa izan da, minus 56,99 milioikoa, eta ehuneko 65 hobetu da aurreko ekitaldikoaren aldean.

- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak negatiboa izaten jarraitzen du, eta 183,62 milioi eurokoa izatera iritsi da, nahiz eta ehuneko 23 hobetu den aurreko urtekoaren aldean; halaber, nabarmentzekoa da funts likidoek ehuneko 127 egin dutela gora, eta 2015ean 61,97 milioikoak izatetik 2016an 140,92 milioikoak izatera pasa direla.

- Balantzearen funts berekiek ehuneko 22 handitu dute beren balio negatiboa, zeina orain pixka batengatik 300 milioitik gorakoa baita. Desoreka horren jatorrian daude ekitaldiko emaitza negatiboak eta aurreko ekitaldietakoak, ondare-kontuarekin konpentsatzen ez direnak.

- Foru Komunitatearen finantza-zorra 2016ko abenduaren 31n 3.057,56 milioikoa zen: 2.710,29 milioi epe luzeko zor gisa sailkatuta eta 347,27 milioi epe laburreko zor gisa. Zenbateko horrek esan nahi du 2015ekoaren aldean ehuneko bosteko (158,7 milioi) igoera gertatu dela, eta ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 90 dela.

- Maileguak edo kredituak amortizatzeko ordainketatik heldu diren gastuak 416,1 milioikoak izatera iritsi ziren, eta 2015aren aldean ehuneko 35 handitu ziren.

- Mailegu edo kredituen interesen ordainketatik heldu diren gastuak 103,9 milioikoak izatera iritsi ziren, eta 2015aren aldean ehuneko lau gutxitu ziren.

- Tributuen diru-bilketa likidoa 2016an 3.249,73 milioikoa izan da, 2015ekoa baino ehuneko bi handiagoa, eta Nafarroako BPGaren ehuneko 17,1 egiten du.

- Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, 2016an, aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiaren eraginetarako eta kontabilitate nazionalako terminoetan, betekizun guztiak bete zituen, aurreko ekitaldian ez bezala; izan ere, orduan ez zituen aurrekontu-egonkortasunaren arauak bete.

Azken batean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantza-egoerak nolabait hobekuntza bat izan du bere adierazle ekonomiko-finantzario gehienetan, baina oraindik ere kanpoko finantzaketara jotzeko beharra badago gastu arruntak estaltzeko eta aurreko pasibo finantzarioen muga-eguneratzei aurre egiteko; zorpetze handiago horrek berekin ekarri du hartatik heldu den finantza-zama finantzatzera bideratutako baliabideak handitzea eta finantza-merkatuetako interes-tasaren bilakaeraren mendetasun aipagarri bat izatea. Bestetik, oraindik ere desoreka batzuk badaude bai diruzaintzako gerakinean, bai funts berekietan, eta horiek eragina izan dezakete likidezian eta epe laburreko kaudimenean.

Kontuen Ganberak azpimarratu izan duenez, Nafarroako Gobernuaren egoera ekonomiko-finantzarioak eskatzen du, beraz, haren gastuak eta diru-sarrerak sistematikoki berrikustea eta haren helburuak berriz definitzea, oraingo ingurune ekonomiko-sozialari aurre egiteko lehentasunezko kudeaketa arloak identifikatze aldera.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan islatutako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

III. FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN KONTUEN LABURPENA (2016KO EKITALDIA)

Ondoren, Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko urteko kontuak osatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri garrantzitsuenen laburpena aurkezten dugu.

III.1. 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2016ko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako kreditua	Bateratua	Baimendua	Erabilia	Gauzaturia	Betetakoa (%)	Ordaindutakoa
Langile-gastuak	1.179.415	1.179.968	1.172.306	1.172.305	1.172.289	99	1.172.022
Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan	592.448	595.478	584.730	583.999	581.344	98	520.128
Finantza-gastuak	104.854	104.977	103.898	103.898	103.898	99	102.035
Transferentzia arruntak	1.404.030	1.443.215	1.435.925	1.431.062	1.428.240	99	1.385.070
Luzapenerako edo kontingentzietarako funtsa	5.308	798	0	0	0	0	0
Inbertsio errealak	96.028	97.174	90.562	90.432	84.855	87	60.235
Kapital-transferentziak	124.089	103.765	98.528	95.369	92.019	89	48.348
Finantza-aktiboak	72.982	94.197	87.875	87.875	87.875	93	87.497
Finantza-pasiboak	426.152	426.153	416.079	416.079	416.079	98	416.079
Guztira	4.005.306	4.045.725	3.989.903	3.981.019	3.966.599	98	3.791.414

2016ko diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

(euroak, milakotan)

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Diru-bilketa garbia
Zuzeneko zergak	1.518.207	1.520.270	1.500.013	99	1.486.308
Zeharkako zergak	1.758.743	1.758.743	1.706.868	97	1.659.378
Tasak, prezio publikoak eta beste-lakoak	95.477	103.086	118.724	115	88.113
Transferentzia arruntak	40.998	46.558	47.664	102	42.885
Ondare bidezko diru-sarrerak	5.911	5.911	9.237	156	4.706
Inbertsio errealen besterentzea	753	1.650	1.218	74	1.122
Kapital-transferentziak	33.610	33.765	21.925	65	7.372
Finantza-aktiboak	55.265	71.871	72.717	101	70.132
Finantza-pasiboak	496.342	503.871	579.702	115	579.702
Guztira	4.005.306	4.045.725	4.058.068	100	3.939.718

III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA

(euroak, milakotan)

Kontzeptuak	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Zenbatekoa
1. Eragiketa arruntak	3.382.506	3.285.771	96.735
2. Kapital-eragiketak	23.142	176.875	-153.733
3. Finantza-aktiboekiko eragiketak	72.718	87.874	-15.158
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaizta	3.478.366	3.550.520	-72.156
II. Finantza-pasiboen alde garbia	579.702	416.079	163.623
III. Ekitaldiko aurrekontu-saldoa			91.469
4. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari atxikitako diruzaintza-gerakinarekin finantzaturako betebeharrak aitortuak			7.700
5. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze negatiboak			17.075
6. Ekitaldiari egotz dakizkiokeen finantzaketa-desbideratze positiboak			-3.208
V. Ekitaldiko aurrekontuaren saldo doitua (III+4+5+6)			113.036

III.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2016ko ABENDUAREN 31n

(eurotan)

Kontzeptuak	Zenbatekoa
+ Kobratzeko dauden eskubideak	226.052.845
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	721.699.931
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-479.437.142
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea	-4.020.988
Aplikatzekoak diren partidengatiko gutxiagotzea (hirugarrenen kontabilitate laguntzailea)	-43.748.051
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	33.261.616
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-2.629.603
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	1.084.396
Diru-bilketa zaileko eskubideak	-157.315
+ Ordaintzeko dauden betebeharrak	-504.022.690
Gastuen aurrekontua: aurtengo ekitaldia	-440.054.085
Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	-7.327.158
Aurrekontuz kanpoko gastuak	-56.641.447
+ Funts likidoak	140.922.763
Diruzaintza-gerakina, guztira	-137.047.082
Diruzaintza-gerakina, Toki Ogasunen Funtsari atxikitakoa	45.563.364
Finantzaketaren desbideratze metatu positiboak	1.011.884
Atxikitako diruzaintza-gerakina	46.575.248
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-183.622.330

III.4. 2016ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

(eurotan)

AKTIBOA	2016ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
A) Ibilgetua	2.819.319.088	2.775.979.301
III. Ibilgetu materialak	2.218.327.677	2.182.799.050
1. Lursailak eta eraikinak	1.501.283.482	1.467.314.609
2. Instalazio teknikoak eta makineria	69.405.710	68.400.430
3. Tresneria eta altzariak	388.433.588	301.319.987
4. Bestelako ibilgetua	259.204.897	345.764.025
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	600.991.411	593.180.251
1. Epe luzerako baloreen zorroa	534.493.407	523.999.407
2. Epe luzerako bestelako inbertsio eta kredituak	67.385.457	70.137.762
4. (Hornidurak)	-887.453	-956.918
C) Aktibo zirkulatzailea	496.171.312	426.861.386
I. Izakinak	17.669.835	15.250.866
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	17.669.835	15.250.866
II. Zordunak	337.532.940	349.621.837
1. Aurrekontuko zordunak	818.678.712	837.496.185
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	143.635	5.982.832
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administra- tzeagatiko zordunak	395.994	310.680
5. Bestelako zordunak	3.787.345	4.000.867
6. (Hornidurak)	-485.472.746	-498.168.727
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	5.779	17.269
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	510	0
3. Epe laburrerako eraturako fidantza eta gordailuak	5.269	17.269
IV. Diruzaintza	140.962.758	61.971.413
Aktiboa, guztira (A+C)	3.315.490.400	3.202.840.688

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2016ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
A) Funts berekiak	-301.677.846	-247.816.537
I. Ondarea	-97.910.167	-9.552.006
1. Ondarea	-97.910.167	-9.552.006
III. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-149.902.230	-88.358.161
1. Aurreko ekitaldiko emaitzak	-149.902.230	-88.358.161
IV. Ekitaldiko emaitzak	-53.865.449	-149.906.370
C) Epe luzeko hartzekodunak	2.721.614.621	2.560.358.266
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	1.440.847.817	1.471.492.195
1. Obligazioak eta bonuak	1.440.847.817	1.471.492.195
II. Epe luzeko bestelako zorrak	1.280.766.804	1.088.866.071
2. Bestelako zorrak	1.280.319.604	1.088.414.048
4. Epe luzerako jasotako fidantzak eta gordailuak	447.200	452.023
D) Epe laburreko hartzekodunak	895.553.625	890.298.959
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	347.266.616	349.830.439
1. Epe laburreko obligazioak eta bonuak	332.735.650	337.728.319
2. Kreditu-erakundeekin dauden epe laburreko zorrak	14.530.966	12.102.120
III. Hartzekodunak	548.287.009	540.468.520
1. Aurrekontuko hartzekodunak	459.311.368	484.349.993
3. Beste erakunde publiko batzuen konturako baliabideak administra- tzeagatiko hartzekodunak	5.664.535	9.221.423
4. Administrazio publikoak	3.212.248	3.023.742
5. Beste hartzekodunak	58.333.014	40.543.023
6. Epe laburrean jasotako fidantzak eta gordailuak	21.765.844	3.330.339
Ondare garbia eta pasiboa, guztira (A+C+D)	3.315.490.400	3.202.840.688

III.5. 2016ko EMAITZEN KONTUA

(eurotan)

Zor	2016ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
A) Gastuak		
2. Hornidurak	255.636.495	247.074.642
b) Ekitaldiko kontsumoak	255.636.495	247.074.642
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.580.969.573	1.528.109.374
a) Langile-gastuak.	1.086.750.594	1.056.063.420
a.1) Soldatak eta ordainsariak	918.698.062	893.838.026
a.2) Gizarte-zamak	168.052.532	162.225.394
b) Gizarte-prestazioak	86.009.632	82.591.403
d) Trafiko horniduretako aldatetak	-13.652.380	-30.481.445
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	-13.652.380	-30.481.445
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk	321.958.157	311.750.745
e.1) Kanpoko zerbitzuak	320.084.098	309.606.215
e.2) Tributuak	58.705	46.611
e.3) Askotariko gastuak	1.815.354	2.097.919
f) Finantza-gastuak eta antzekoak	99.016.637	108.086.390
f.1) Zorrak direla eta	99.016.637	108.086.390
g) Finantza-inbertsioetarako horniduren aldateta	886.933	98.339
4. Transferentziak eta diru-laguntzak	1.521.120.789	1.588.472.931
a) Transferentzia arruntak	1.429.016.701	1.471.055.589
c) Kapital-transferentziak	92.104.088	117.417.341
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	111.359.158	103.388.926
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	144.216	0
c) Aparteko gastuak	51.871.860	50.241.371
d) Beste ekitaldi batzuetako gastuak eta galerak	59.343.082	53.147.555
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)		
Zorra, guztira	3.469.086.015	3.467.045.873

(eurotan)		
Hartzeko	2016ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
B) Diru-sarrerak		
1. Ohiko kudeaketako diru-sarrerak	3.235.275.297	3.138.435.748
a) Tributu bidezko diru-sarrerak	3.219.184.072	3.121.188.269
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	1.186.540.933	1.113.962.028
a.2) Sozietateen gaineko zerga	205.097.291	213.556.532
a.3) Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga	43.051.133	58.086.629
a.4) Ondarearen gaineko zerga	31.844.693	44.741.032
a.8) Zuzeneko beste zerga batzuk	33.478.970	37.405.785
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta EJDen gaineko zerga	48.797.872	48.329.767
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	1.221.861.729	1.184.256.852
a.11) Zerga bereziak	436.207.944	409.399.347
a.12) Zuzeneko zerga iraungiak	0	19.755
a.15) Zerbitzuak emateagatiko tasak	12.303.508	11.430.541
b) Kotizazio sozialak	2.207.667	2.405.916
c) Zerbitzu-emateak.	13.883.558	14.841.563
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	13.883.558	14.841.563
2. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	99.596.996	108.622.530
a) Diru-itzultzeak	9.139.211	7.793.182
b) Salmentak eta zerbitzu-emateak	40.805.213	40.280.194
c) Kudeaketaren ondoriozko beste diru-sarrera batzuk	38.532.023	39.033.096
c.1) Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	38.532.023	39.033.096
f) Beste diru-sarrera finantzario batzuk	11.120.549	21.515.878
f.1) Beste interes batzuk	11.120.549	21.515.878
3. Transferentziak eta diru-laguntzak	55.047.253	48.614.883
a) Transferentzia arruntak	47.664.041	36.931.359
b) Kapital-transferentziak	7.383.212	11.683.523
5. Ezohiko irabazi eta diru-sarrerak	25.301.020	21.466.342
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	1.597.853	78.631
c) Aurtengo ekitaldiko ezohiko sarrerak	0	66.598
d) Beste ekitaldi batzuetako diru-sarrerak eta etekinak	23.703.167	21.321.113
Saldo zorduna (desaurrezkia)	53.865.449	149.906.370
Hartzekoa, guztira	3.469.086.015	3.467.045.873

IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lana dela-eta lortu oharrak eta ondorioak azalduko ditugu, bai eta Ganbera honen ustez kudeaketa hobetzen lagundu dezaketen gomendioak ere.

IV.1. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZEDARRITZEA, 2016an

Foru sektore publikoaren 2016ko zedarritzea bi ikuspuntutatik azter daiteke:


- Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.
- Aurrekontu- eta kontabilitate-egonkortasun nazionalari buruzko arauen arabera.

IV.1.1. FORU SEKTORE PUBLIKOA, NAFARROAKO OGASUN PUBLIKOARI BURUZKO APIRILAREN 4KO 13/2007 FORU LEGEAREN ARABERA

Honako hauek dira 2016an foru sektore publikoa osatzen dutenak, aipatutako 13/2007 Foru Legearen eraginetarako:

- Foru Komunitatearen Administrazioa eta hari atxikitako erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren menpeko organoak; hau da, Kontuen Ganbera eta Arartekoa.
- Nafarroako Kontseilua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritakoaren arabera.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde publikoek sortutako fundazio publikoak, eta pribatuak izanik geroago publikotzat hartzeko betekizunak biltzen dituztenak (Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 125. artikulua).

Hauxe zen foru sektore publikoaren 2016ko abenduaren 31ko irudikapen grafikoa:



Aurreko irudia aztertuta, honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 2016ko abenduaren 31n, Foru Komunitateko Administrazioari atxikitako bederatzia departamentu eta zortzi erakunde autonomo zeuden.

• Foru Komunitateko Administrazioak 17 enpresaren partaidetzen gehiengoa zeukan, aipatutako datan. Zuzenean parte hartzen zuen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLU (NEKP) enpresan, zeinean kapitalaren ehuneko 100 baitzeukan; zeharka, berriz, NEKPren eta haren menpeko sozietateen bitartez, hurrengo 16 sozietate hauetan:

Enpresa publikoa	Partaidetzaren ehuneko NEKP	Jarduera ekonomikoa
Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL (CEIN)	100	Berrikuntza eta ekintzaileak
Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, SA (CNAI)	100	Hezkuntza eta talentua
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL (CAT)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Gestión Ambiental de Navarra, SA (GAN)	100	Ingurumena
Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA (INTIA)	100	Nekazaritza-elikagaiak
Navarra Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio, SL (NICDO)	100	Azpiegitura tematikoak, kulturalak, aisialdiak eta kirolak
Navarra de Infraestructuras Locales, SA (NILSA)	100	Tokian tokiko azpiegiturak
Navarra de Servicios y Tecnologías, SA (NASERTIC)	100	Administrazio publikoentzako zerbitzuak eta teknologia
Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA)	100	Lurzorua eta etxebizitza
Potasas de Subiza, SAU (POSUSA)	100	Ingurumen jarduera eta industria ehundura berrosatzea
Salinas de Navarra, SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea eta merkaturatzea
Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.L. (SODENA)	100	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa
Natural Climate Systems, SA (MIYABI)	100	Sustapena, eraikuntza eta zaharberritzea, eraginkortasun energetikoko irizpideak erabilia.
Start Up Capital Navarra, SL	59,5	Enpresak ezagutarazi eta sustatzea
Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	100	Ogasuna eta ondarea
TRACASA Instrumental, SL		

2015arekin alderatuta, eta 2014/24/CE Europako zuzentaraua betez, nabarmentzekoa da 2016ko martxoan TRACASA Instrumental SL sozietatea eratu zela.

• Honako hauek ziren Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoak 2016ko abenduaren 31n:

Fundazio publikoa	Xedea
Baluarte	Baluarte jauregian kultur jarduerak sustatzea
Nafarroako Ondare Historikoaren Kontserbazioa	Kultur intereseko ondasunak kontserbatu eta zaharberritzea
Miguel Servet	Ikerkuntza sanitarioaren sustapena
Pertsona Helduen Tutoretza	Pertsona adindunen eta ezgaituen arreta eta tutoretza

Kontuan hartu beharra dago ezen 2016ko urrian Nafarroako Gobernuak erabaki zuela Pablo Sarasate Fundazioa azkentzea. Fundazio hori Baluarte fundazioak xurgatu zuen.

Kontu Orokorren oroitidazkiak adierazten duen arren bera idazteko unean Baluarte Fundazioa bere kontuak igorri gabe zegoela, entitate horrek geroztik bidali zituen, eta haien datuak jaso egin ditugu.

Zehazki, honako hauek dira Foru Sektore Publikoa osatzen duten entitateen 2016ko abenduaren 31ko datu ekonomiko eta langile-gastu nagusiak, Kontu Orokorren oroitidazkian zabalago eta iruzkinekin ageri direnak:

- Foru Komunitateko Administrazioa

(euroak, milioitan)

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak
Departamentuak	721,65	2.194,61
Erakunde autonomoak	3.336,42	1.771,99
Guztira	4.058,07	3.966,60

- Sozietate publiko bateratuak

(euroak, milakotan)

	Ekitaldiko emaitza	Foru Administrazioaren diru-laguntzak	Epe luzeko zorpetzea	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
17 sozietateak bateratu ondorengo datuak	-4.520	20.599	132.512	634.429	1.1110

- Fundazioak

(euroak, milakotan)

Fundazioak	Ekitaldiko soberakina	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
Lau fundazio publikoak, guztira	-398	1.227	84

- Beste entitate batzuk

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Foru Ogasunari itzultitako gerakina	Langileak, 2016-12-31
Nafarroako Parlamentua	13.017.611	11.074.454	1.918.794	73
Kontuen Ganbera	2.591.611	2.454.111	183.824	34
Arartekoa	756.515	667.400	89.115	7
Nafarroako Kontseilua	369.972	294.759	75.214	2

IV.1.2. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN SEKTOREA, AURREKONTU EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO APIRILAREN 27KO 2/2012 LEGE ORGANIKOAREN ARABERA.

Kontabilitate nazionaleko terminoetan (SEC´2010), 2016rako honako hauek jotzen dira Nafarroako Administrazio Publikoaren sektorekotzat:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoak.
- Nafarroako Parlamentua eta haren mendeko erakundeak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- Foru erkidegoko sozietate publikoak, gehien bat merkataritzako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak ematen dituztenak edo ondasunak sortzen dituztenak. Zehazki, 2016rako, hurrengo 13 sozietate hauek hartzen dira administrazio publikotzat: NEKP, CNAI, CEIN, CAT, GAN, INTIA, NICDO, Nasertic, Sodena, Tracasa eta Tracasa Instrumental (aurten gehitu dena, 2016ko martxoan sortu baita), Start UP Capital Navarra, eta Caviar Per Se, zeina likidatzen ari baita eta aurten lehenengo urtez jaso baita.
- Foru Komunitateko bederatzi fundazioak ziren berez publikotzat jotako lau fundazioak, ares-tian aipatu direnak (gehi Pablo Sarasate Fundazioa, zeina 2016ko urrian azkendu baitzen), eta mendekotasun ekonomikoa duten beste fundazio batzuk: Cener-Ciemat Fundazioa, Amado Alonso Fundazioa, Centro de Arte Contemporáneo de Huarte Fundazioa (ekitaldi honetan lehenengo aldiz jaso dena) eta Centro de Recursos Ambientales de Navarra (CRANA) Fundazioa, zeina 2016ko abuztuan likidatu baitzen, haren ondasunak eta jarduera GAN sozietatean sartuz.

IV.2. 2016ko NAFARROAKO AURREKONTU OROKORRAK

2015eko azaroan, Gobernuak 2016rako gastu ez-finantzarioaren muga onetsi zuen, 3.478 milioitan ezarriz; hau da, 2015ean baino ehuneko 3,23 gehiago (109 milioi gehiago).

2016ko urtarrilaren 29an, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zen, 4.005,31 milioi euroko zenbatekoarekin.

2016ko aurrekontuak badu gastuetako partiden artean kontingentzietarako funts bat, Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eskakizunekin bat. Funts horrek, hasiera batean, 5,3 milioi euroko hornidura du, aurrekontuetan aurreikusi ezin izan diren premia geroraezin eta saihetsezinei aurre egin ahal izateko. Funts horren araupetzea Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeko 42. artikuluan jasota dago.

Aurrekontu-aldaketak

2016an zehar onetsitako gastuen aurrekontu-aldaketak honako hauek izan ziren:

Aurrekontu-aldaketak	Diru-sarrera handiagoekin finantzatuak	(euroak, milakotan)
		Beste gastu batzuk gutxituz finantzatuak
Kreditu gehikuntzak	15.926	62.140
Kreditu sorkuntza	21.385	0
Kreditu-osagarriak	0	529
Aparteko kreditua	3.109	3.386
Guztira, 2016	40.420	66.055

Aurrekontuaren ondorioetarako, diru-sarrera handiagoak baliatuz finantzatutako aldaketek baizik ez dakarte aurrekontuko kredituen guztizko zenbatekoa aldatzea. Gainera, aurreko taulan ez dira kreditu-transferentziak jaso. Aurrekontuaren ondorioetarako eragiketa horiek ere ez dute eraginik kredituen guztizko zenbatekoan.

Bestalde, aurreikusita zegoen Kontingentzietarako Funtzaren % 85 (4,5 milioi euro) erabili zen, Nafarroako Gobernuak hala erabakita, beste iturri batzuekin batera bidegabeki jasotako diru-sarreraren itzulketen berandutza-interesak finantzatzeko (ehuneko 78), bai eta langile-gastuen partidaren bat finantzatzeko ere (ehuneko 22).

Kontuen Ganberak, Parlamentuak eskatuta eta indarra duen legediari jarraituz, legezketasun txostenak egin zituen Ogasuneko kontseilariaren eskumenekoak diren ekitaldiko aurrekontu-aldaketei buruz, eta ondorioztatu du organo eskudunak onetsi zituela eta onetsitako aurrekontu-araudian ezarritako legezko mugak errespetatu zirela; besteak beste, finantzabideen egokitasunari dagokiona. Ganbera honek txostena egin dien aldaketen guztizko zenbatekoak 133,28 milioi egiten zuen.

Erabili gabeko kredituek 2016ko abenduaren 31n 1,34 milioi euro egiten zuten, eta lotuta zeuden, batez ere, Zentro Psikogeriatrikoaren Plan Zuzendariko obrekin (guztizkoaren ehuneko 81).

Bestetik, Ganbera honen aurreko ekitaldietako txostenetan esan genuen bezala, 2016ko gastuen hasierako aurrekontuak 11,5 milioiko kreditua jasotzen du Toki Azpiegituren Planerako, zeina finantzatzen baita atxikitako diruzaintzako gerakinarekin; gure iritziz, eragiketa hori hasierako aurrekontuan sartu beharko zen, beharrezko den aurrekontu-aldaketa eginez.

Ganbera honek aurreko txosten batzuetan behin eta berriz adierazi duen bezala, gomendatzen dugu gastuen aurrekontuaren hasierako kredituetan ez sartzea atxikitako diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak.

IV.3. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN 2016ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

Gastuetarako hasierako kredituek ehuneko bateko igoera garbia izan dute (40,42 milioi euro) aldaketen bitartez, eta kreditu bateratuak 4.045,73 milioioak izatera iritsi dira.

2016an aitortutako betebeharrak 3.966,59 milioi euro egin dute, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajeak % 98 eta % 96 izan dira, hurrenez hurren.

Aitortutako eskubide garbiek 4.058,07 milioi egiten dute, ehuneko 100eko betetze-mailarekin eta ehuneko 97ko diru-bilketa garbiaren portzentajearekin.

2016ko betetzea orokorrari buruz, honakoa esan behar dugu:

• Nafarroako Gobernuak 2016an gastatutako 100 euro bakoitza honela erabili eta finantzatu dira:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa, 2015	Zenbatekoa, 2016	Finantza iturria	Zenbatekoa, 2015	Zenbatekoa, 2016
Langileak	29	30	Tributu bidezko diru-sarrerak	83	82
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	14	15	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	2	2
Transferentzien bidezko gastuak	41	38	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	3	2
Inbertsio errealak	2	2	Zorpetzea	12	14
Finantza-zama	11	13			
Finantza-aktiboak	3	2			
	100	100		100	100

• 2016ko aurrekontu-gastua, bere helburuari edo egitekoari erreparatuta, honako hau izan zen:

(euroak, milakotan)

Gastu-politika	2015eko betebeharrak	2016ko betebeharrak	2016/2015 aldea (%)
Oinarrizko zerbitzu publikoak	114.295	118.271	3
Justizia	25.837	27.267	6
Herritarren segurtasuna eta espetxe-erakundeak	82.959	84.203	1
Atzerri-politika	5.499	6.801	24
Gizarte-babesezko eta -sustapeneko jarduketak	451.559	467.972	4
Pentsioak:	96.371	100.217	4
Bestelako prestazio ekonomikoak	6.733	2.202	-67
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	256.686	285.145	11
Enpleguaren sustapena	45.456	41.681	-8
Etxebizitza eskuratzea eta eraikuntza sustatzea	46.313	38.727	-16
Lehentasunezko izaera duten ondasun publikoen ekoizpena	1.580.932	1.616.171	2
Osasuna	958.343	974.784	2
Hezkuntza	580.374	597.856	3
Kultura	42.215	43.531	3
Jarduketa ekonomikoak	319.641	321.516	1
Nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura	78.231	80.551	3
Industria eta energia	18.286	18.664	2
Merkataritza, Turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	7.025	6.609	-6
Garraiorako diru-laguntzak	24.057	24.172	0,5
Azpiegiturak	134.863	121.713	-10
Ikerketa, garapena eta berrikuntza	51.614	64.436	25
Izaera ekonomikoko beste jarduketa batzuk	5.565	5.371	-3
Jarduketa orokorrak:	1.447.535	1.442.669	-0,3
Goi-zuzendaritza	18.893	17.746	-6
Zerbitzu orokorrak	136.267	100.977	-26
Finantza eta tributazio administrazioa	15.354	18.708	22
Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.	617.975	541.107	-12
Estatuarekiko bestelako hitzarmenak	8.500	8.500	0
Toki-administrazioentzako transferentziak	236.144	240.381	2
Zor publikoa	414.402	515.250	24
Guztira	3.913.963	3.966.599	1

2016an, nabarmentzekoak dira Osasunaren eta Hezkuntzaren arloko gastuak, zeinek guztizko gastuaren ehuneko 25 eta 15 egiten baitute, hurrenez hurren. Gainera, azpimarratu nahi ditugu Estatuarekiko Hitzarmena, zor publikoa eta gizarte-zerbitzuak zein gizarte-sustapeneko zerbitzuak, zeinek ehuneko 14, 13 eta zazpi egiten baitute, hurrenez hurren.

2015arekin alderatuta, ikusten da zor publikoak ehuneko 24 egin duela gora, administrazio finantzarioak eta tributu-administrazioak ehuneko 22, eta gizarte zerbitzuek eta gizarte sustapenak ehuneko 11; gainera, ehuneko 26 gutxitu da zerbitzu orokorretako gastua, ehuneko 16 etxebizitzarako sarbidea eta eraikuntzaren sustapena, eta ehuneko 12 Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa, arestian aipatu dugun desadostasuna tarteko.

Adierazleak

Hurrengo taulan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren adierazle batzuen bilakaera erakusten dugu, 2015. eta 2016. urteei dagokiena (euroak, milakotan):

Adierazlea	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Gastua, guztira	3.913.963	3.966.599	1
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4. kapitulura)	3.280.412	3.285.771	0,2
Funtzionamendu gastuak (1,2 eta 4. kapituluak)	3.171.947	3.181.873	0,3
Kapitaleko gastuak (6. eta 7. kapituluak)	209.278	176.874	-15
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	424.224	503.954	19
Diru-sarrerak, guztira	3.876.563	4.058.068	5
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura)	3.283.446	3.382.506	3
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3. kapitulura)	3.234.908	3.325.605	3
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (ehunekoa)	99	101	-
Tributuen diru-bilketa likidoa ⁽²⁾	3.198.430	3.249.732	2
Tributuen diru-bilketa likidoak BPGaren gainean zenbat egiten duen	17,53	17,09	-
Kapitaleko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	43.075	23.143	-46
Finantza eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	550.043	652.419	19
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-163.217	-56.996	65
Aurrekontu-emaizta doituia	-23.941	113.036	572
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-238.100	-183.622	23
Aurrezki gordina	111.499	200.633	80
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	415.741	519.977	25
Aurrezki garbia	-304.242	-319.344	-5
Ekitaldiaren emaitzak (desaurrezkoa)	-149.906	-53.865	64
Funts berekiak	-247.753	-301.678	22
Nafarroako Gobernuaren finantza-zorra ⁽¹⁾	2.898.861	3.057.559	5
Zorrek diru-sarrera arruntan gainean egiten duen ehunekoa	88	90	-
Eratutako abalak (saldo bizia)	179.628	163.524	-9
Etorrizuneko ekitaldiarako hitzartutako gastuak	3.864.253	3.948.964	2

(1) Amortizatutako kostua.

(2) Diru-bilketa likidotzat ulertzen dira urteko ekitaldian eta itxitako ekitaldietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken itzulketak.

Aurreko bilakaeratik, honako hau nabarmendu behar dugu:

- 2016an, guztizko gastuak 2015koen ia berdinak izan dira, eta ehuneko bat baizik ez dute gora egin (52,74 milioi). Haien izaerari erreparatuta, gastu arruntak ehuneko 0,2 handitu dira; finantza-eragiketengatik gastuak, berriz, ehuneko 19 handitu dira, eta kapitaleko gastuak, azkenik, ehuneko 15 gutxitu dira.

- 2016ko guztizko diru-sarrerak ehuneko bost (181,51 milioi) egin dute gora 2015ekoekin alderatuta. Tributuen bidezko diru-sarrerak eta diru-sarrera arruntak ehuneko hiru handiagoak izan dira; kapitalekoak, ordea, ehuneko 46 jaitsi ziren; bestalde, finantza-eragiketetatik heldutakoek ehuneko 19 egin dute gora.

- Bi ekitaldietan, tributu bidezko diru-sarrerek aukera ematen dute soilik Administrazioaren gastu arruntaren bolumena finantzatzeko; halere, 2016an, nolabaiteko hobekuntza bat nabaritzen da, ehuneko 101eko portzentajearekin (2015ean, ehuneko 99 izan zen).
- Tributu bidezko diru-bilketa likidoa Nafarroako BPGaren¹ ehuneko 17 da. 2015ekoaren anzeko portzentajea da. Ehuneko bi handitu da aurreko urtekoaren aldean.
- 2016ko aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 57 milioi negatiboa izan da. 2015ekoaren aldean ehuneko 65 hobetu da.
- Gastu orokorretarako 2016ko diruzaintzako gerakina 183,62 milioi negatiboa da; balio negatibo horrek ehuneko 23 egin du behera 2015ekoarekiko, ondoren azaltzen dugun bezala:

(euroak, milakotan)

Magnituedea	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-126.369	-174.939	-239.750	-221.192	-184.088	-238.100	-183.622

2016an balioa hobea den arren, negatiboa izaten jarraitzen du. Horrek erakusten ditu, batetik, diruzaintzaren defizit erreala eta, bestetik, etorkizuneko ekitaldietan gastuak bide horretatik finantzatzeko ezintasuna.

Ganbera honek aurreko txostenetan behin eta berriz adierazi duen moduan, gomendatzen dugu gerakin negatibo hori finantzatzeko behar diren neurriak erregulatzeko.

- Aurrezki gordinak² ehuneko 80 egin du gora, 200,63 milioikoa izateraino; zenbateko hori, dena den, nabarmen eskasa da finantza-zamari aurre egiteko,³ eta 319,34 milioiko aurrezki garbi negatiboa sortzen da, zeinaren balioak ehuneko bost egin baitu okerrera 2015ekoarekin alderatuta.
- Ekitaldiko emaitzak negatiboa izaten jarraitzen du (desaurrezkoa), 53,86 milioi negatiboa hain zuzen; balio negatibo hori 2015ekoa baino ehuneko 64 hobea da.
- 2008tik ekitaldiko emaitzen balioak negatiboak izatearen ondorioz, funts berekiek, 2016an, 301,68 milioiko saldo negatiboa dute. 2015. urtearekin alderatuta, balio negatibo horrek ehuneko 22 egin du gora.
- 2016ko abenduaren 31ko finantza-zorra, kostua amortizatuta, 3.057,56 milioi eurokoa da; aurreko urtean baino ehuneko bost handiagoa, beraz. Haren ehuneko 11 epe laburrean du muga-eguna. Diru-sarrerara arruntan aldean, ehuneko 90 da; aurreko ekitaldian baino ehuneko bi handiagoa.
- Zor garbiaren aurrekontu-bilakaera –itundutako zorra ken amortizatutako zorra–, 2009-2016 aldiko ekitaldi bakoitzari dagokionez, hurrengo taulan jasotakoa da:

(euroak, milioitan)

Zor garbia	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Itundutako zorra	214,7	595,2	483,2	418,9	463,7	492,6	446,9	579,7
Amortizatutako zorra	0,03	103,2	91,2	107,3	193,2	296,5	307,2	416,1
Zor garbia, guztira	214,67	492,0	392,0	311,6	270,5	196,1	139,7	163,6

Zor garbiaren balio handiena 2010ean aurkitzen dugu, 492 milioirekin, eta ekitaldi horretatik aurrera haren zenbatekoa nabarmen gutxitzen doa. Gainera, nabarmendu beharra dago itundutako zorra nabarmen handitu dela 2016an eta, bestetik, amortizatutako zorra ere handitu egin dela, 416 milioikoa izateraino, azken urte hauetako baliorik handiena. Horri dagokionez, aipatu beharra dago 2016an 70 milioi euroko mailegu bat aurrez amortizatu zela –2019an zuen muga-

¹ Nafarroako 2016ko BPGa 19.018 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera).

² Aurrezki gordinak: diru-sarrerara arruntak (1. kapitulutik 5. kapitulura) ken funtzionamendu gastuak (1, 2 eta 4. kapituluak)

³ Aurrezki garbia: Aurrezki gordinak ken finantza-zama (gastuen 3. eta 9. kapituluak).

eguna-, baina eragiketa hori egiteko zenbateko hori duen beste mailegu bat hartu behar izan zela.

Azken batez, progresiboki handitzen doa zorraren muga-eguneratzeak finantzatzeko bideratzen duten zor itunduaren zenbatekoa.

- Etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako aurrekontu-gastuek 3.948,96 milioi euro egiten dute. Horietatik, ehuneko 88 zorraren zama finantzarioari dagozkio. 2015eko datuekin alderatuta, gastu horiek ehuneko bi egin dute gora.

Hona kapituluz kapituluko eta urtez urteko xehetasunak:

(euroak, milakotan)

Kapitulua	2017	2018	2019	Gainerakoa	Guztira	%, Guztizk. gain.
1 Langileria-gastuak	76	0	0	0	76	0
2 Gastu arruntak ondasunetan eta zerbitzuetan	163.324	29.188	6.372	238	199.122	5
3 Gastu finantzarioak	87.056	75.689	62.323	255.527	480.595	12
4 Transferentzia arruntak	41.941	4.620	4.288	3.650	54.499	1
6 Inbertsio errealak	47.688	28.145	14.261	1.382	91.476	2
7 Kapital-transferentziak	53.168	9.037	4.281	7.235	73.721	2
8 Finantza-aktiboak	9.350	8.350	7.350	26.450	51.500	1
9 Finantza-pasiboak	293.930	240.981	257.656	2.205.406	2.997.973	76
Etorkizuneko ekitaldietako gastuak, guztira	696.533	396.010	356.531	2.499.888	3.948.964	100
<i>Ehunekoal/urtea</i>	<i>18</i>	<i>10</i>	<i>9</i>	<i>63</i>	<i>100</i>	

Aurreko gastuek ez dituzte jasotzen funtzionarioen montepioen betebeharrak aktuarialak, ez lan-kidetzaren publiko-privatuaren formula erabiliz egindako proiektuetatik heldutako gastuak, ez eta interes aldakorra duten maileguengatik zenbatetsitakoak ere.

Horri buruz, nabarmendu behar dugu oroitidazkian itzaleko bidesarrietatik heldu diren eta aurreikus daitezkeen ordainketa-fluxuekin lotutako informazioa jaso dela, etorkizuneko gastu-konpromisoetan jaso gabe baitaude, haien zenbatekoa zein den ezin delako jakin⁴ Etorkizuneko gastu-aurreikuspen horiek pasibo kontingente moduan hartzen dira, eta honako hauek dira:

(euroak, milakotan)

Azpiegitura	2017	2018	2019	Gainerako urteak	Guztira
Nafarroako Ubidea, 1. fasea	15.836	16.314	16.764	349.133	398.047
Nafarroako Ubidearen zabalkuntza, 1. fasea	6.386	15.100	16.462	545.635	583.583
Donejakue Bideko autobia	46.700	50.467	53.446	501.643	652.256
Pirinioetako autobia	30.238	31.691	33.218	899.609	994.756
Guztira	99.160	113.572	119.890	2.296.020	2.628.642

Gomendatzen dugu etorkizuneko konpromisoen egoerak isla ditzala etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak.

⁴ Ulertzen da haren zenbatekoa ez dela segurua, zeren eta 2016an, esate baterako, 89,73 milioi euroko gastuak zenbatetsi ondoren kopuru erreala 75,08 milioikoa izan baitzen.

IV.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN PRINTZIBIOAK.

Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak, zeina kontabilitate nazionaleko terminoetan (SEC'2010) mugatuta baitago, 2016an honako arau fiskalak bete behar ditu:

- Aurrekontuen egonkortasun-printzipioak:

a) Gastu-araua: 2016ko gastu zenbakarriak ez du gaindituko aurreko urteko gastuaren gaineko igoeraren ehuneko 1,8ko erreferentzia-tasa.

b) Finantzaketa-beharrek ez dute gaindituko BPGaren ehuneko 0,7a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz.

- Finantza-iraunkortasunaren printzipioak:

a) Zorpetze publikoaren iraunkortasuna. Gehieneko zorpetze-gaitasunak, gehiegizko defizitarren protokoloaren (GDP) metodologiaren arabera kalkulatuak, ezin izanen du gainditu, 2016ko abenduaren 31n, BPGaren ehuneko 18,3a, Nafarroak eta Estatuak hitzartutakoari jarraituz. Ondoren, zenbait salbuespen bazeudelako, baimena eman zen portzentaje hori aldatzeko, ehuneko 18,5eraino igoz.

b) Merkataritza-zorren iraunkortasuna. Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazleak ez du gainditu behar berankortasunari buruzko araudian finkatutako ordainketarako gehieneko epea. Araudi hori Merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeak ezarri zuen. Oro har, epe hori 30 egunekoa izanen da.

c) Zuhurtzia edo finantza-eragiketek arriskua eta kostua ahal den guztian gutxitzeko bete beharreko baldintzen multzoa; honako honetan gauzatzen da:

c.1) Finantza-pasiboak edo zorpetzea. Zorpetze-eragiketen gehieneko guztizko kostuak, komisioak eta bestelako gastuak barne direla, ezin izanen du gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua eragiketaren epe ertainean, diferentzial jakin batzuk gehituta, honako hauei jarraituz: AItxorren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko uztailaren 31ko Ebazpena⁵ eta 2016ko irailaren 16ko Ebazpena, ekitaldi honen amaierako eragiketaren bati aplikatzekoa zaiona.

c.2) Abalak, berrabak edo bestelako berme publikoak. Koordinazio Autonomikoaren eta Tokikoaren Idazkaritza Nagusiaren 2015eko irailaren 9ko Ebazpenari jarraituz, bi muga ezartzen dira SECen arabera bateratze-perimetroa osatzen ez duten entitateei abalak emateko: alde bate-tik, muga orokor bat, zeinaren arabera 2015eko abenduaren 31n abalen eta emandako gainerako bermeen zenbatekoak gehi hurrengo ekitaldirako aurreikusitako baimenek ezin izanen dute gain-ditu Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,5a; bestetik, banakako muga bat, zeinaren arabera eman-dako abal edo berme batek ezin izanen du gainditu 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehu-neko 0,1eko muga.

c.3) Aktibo finantzarioak Aipatutako irailaren 9ko Ebazpenaren arabera, eta zor publikoaren helburua betetzen ez duten autonomia erkidegoei zuzenduta, azken horiek ezin izanen dute fi-nantza-aktiboan alde garbi positiborik izan ez-betetzearen hurrengo aurrekontu-ekitaldiaren itxie-ran. Nafarroak 2015ean zor publikoaren helburu hori bete duenez, legezko betebeharrak ez zaio aplikatzekoa izanen 2016ko ekitaldian.

Estatuaren Kontu-hartze Orokorra da administrazio publikoen sektoreko kontu ekonomikoak egiteko organo eskuduna, eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioa da aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruzko behin betiko erabakia hartzeko ar-dura duena.

2017ko urrian, aipatutako ministerioak, aurrerapen gisa, txosten bat argitaratu zuen. Hartan, agerian jartzen zen Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektoreak 2016an honako hauek bete dituela: aurrekontu-egonkortasunaren helburua, gastu-araua eta zor publikoaren helburua.

⁵ 2017ko uztaila, beste ebazpen bat argitaratu zen, arestian aipatu dugun 2016ko irailakoa indarrrik gabe uzten duena. Haren bitartez, itundu beharreko eragiketen interes-tasak gaurkotzen dira.

Aurreko arau fiskalen betetze-maila azertu dugu:

IV.4.1. AURREKONTU-EGONKORTASUNA

Aztertutako informazioan oinarrituta, honako ondorioak atera ditugu:

1.a Gastu-araua

Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak 2017ko urrian kalkulaturako datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak gastu-araua bete du, zeren eta 2016an haren gastu zenbakarriak ehuneko 0,6 egin baitu behera aurreko ekitaldiarekin alderatuta; igoera-tasa, berriz, ehuneko 1,8an finkatuta zegoen. Hartara:

Gastu-araua – Gastu zenbakarria	2015	2016	Aldea (%) burutua	Aldea (%) helburua
Zenbatekoa (milioitan)	2.629	2.612	-0,6	1,8

Iturria: Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioa.

Hau da, gastu zenbakarria 17 milioi txikiagoa izan zen 2015ekoa baino; baimendutako igoera, berriz, ehuneko 1,8koa izan zen.

2.a Finantzaketa-beharrak

Ondoren, milioi eurotan adierazita, Nafarroaren finantzaketa-beharrei buruzko datuak ematen ditugu: 136,5 milioi eurokoak dira eta Nafarroako BPGaren ehuneko 0,7 egiten dute, hain zuzen ere itundutako mugarekin bat eginez eta, horrenbestez, arau hori betez, Ministerioak 2017ko urrian argitaratutakoaren arabera:

(euroak, milioitan)	
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektorearen defizita	2016
I. Aurrekontuko saldo ez-finanzarioa (diru-sarreraren aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura ken gastuen aurrekontuko 1. kapitulutik 7. kapitulura)	-57,6
Administrazio orokorrarena eta haren erakunde autonomoena	-57,0
Nafarroako Parlamentuarena, Arartekoarena, Nafarroako Kontseiluarena eta Kontuen Ganberarena	0,3
Nafarroako Unibertsitate Publikoarena	-0,9
II. Aurrekontuko saldoan egindako doitzeak	-83,1
Hitzarmen Ekonomikorako ekarpena	-82,6
Administrazio Zentralaren eta Gizarte Segurantzaren transferentziak	3,5
Europako funtsetako transferentziak	1,0
Diru-bilketa ez-segurua	-5,7
Osasunerako zentimoa	4,6
Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketak	-3,5
Elkarte publiko-pribatuen bidezko inbertsioak	3,8
Sortutako interesak, mugaegunera iritsi gabeak	4,9
ADIFen obren aurrerakinak (AHT)	-14,5
Betetako abalak	-0,6
Hartzekodunak, zergak itzultzeagatik	24,8
Enpresen finantza-ekarpenak	-18,8
III. Elkarte publikotzat jotako beste unitate batzuk (sozietate eta fundazio publikoak)	4,2
IV. Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharrak (I.etik III.ra)	-136,5
Nafarroako finantzaketa-beharraren ehunekoa BPGaren gainean (1)	-0,7
Hitzartutako helburua, Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoan adierazia	-0,7

Iturria: Nafarroako Gobernuak.

(1) Nafarroako 2016ko BPGa 19.018 milioikoa izan dela jo da (Estatuko Estatistika Institutuaren arabera).

Zenbatespen horretan, kontuan hartu beharra dago ezen, Nafarroako Gobernuaren Kontu Orokorren oroitidazkian jasotako informazioan ez bezala –desadostasun hori aipatzen du baina ez du kontuan hartzen arau fiskal horren betetzea kalkulatzeko–, Ministerioak 2016ko Hitzarmen Ekonomikoaren fluxuetan sartu du Nafarroaren eta Estatuaren artean dagoen desadostasuna. Ministerioaren kalkuluen arabera, Nafarroak 82,55 milioi euroko ez-ordaintze partziala egin du, eta horrek

136,5 milioi euroraino igoko lituzke finantzaketaren beharrak. Doikuntza horixe da aipagarriena. Nolanahi ere, Nafarroak araua beteko lituzke, zeren eta zenbateko hori bat baitator itundutako BPGaren ehuneko 0,7rekin.

Honako hau da Administrazio Publikoaren Sektorearen finantzaketa-beharren bilakaera 2009-2015 aldian:

	(euroak, milioitan)							
Finantzaketa-beharrak	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zenbatekoa	-477	-564	-368	-311	-255	-149,5	-269,9	-136,5
%, Nafarroako BPGaren gainean	-2,62	-3,03	-1,97	-1,72	-1,45	-0,84	-1,48	-0,7

Ekitaldi guztietan, finantzaketa beharrak sortu dira, eta 2009ko eta 2010eko ekitaldietan balio gorenetera iritsi da. 2016koak aztertutako aldian izandako txikienak dira.

Halaber, azpimarratzen dugu ezen, eskura dauzkagun datuen arabera, bete egin direla Zerga-erantzukizuneko Agintaritza Independentearen 2016ko txosteneko aurreikuspenak; izan ere, agintaritza horrek jotzen zuen gertagarria zela Foru Komunitateko Administrazioak 2016ko eta 2017ko ekitaldietako defizit helburuak betetzea, bai eta 2016rako gastu-araua ere. Nabarmentzekoa da txosten horrek zailtasun handiagoak ikusten zituela 2017ko gastu-araua betetzeko.

IV.4.2. IRAUNKORTASUN FINANTZARIOA

1.a Zor publikoaren iraunkortasuna

Zor publikoaren 2016rako helburua, gehiegizko defizitaren prozedurarako (GDP) metodologiaren arabera kalkulatua, Estatuak eta Foru Komunitateak ehuneko 18,3an hitzartu zuten.

GDParen arabera, zor publikoa da urte bukaeran ordaintzeke dauden administrazio publikoaren sektorearen betebeharrak gordinen balio nominala; hau da, metalezko monetaren, obligazio eta bonoen, mailegu eta kredituen jaulkipena. Horretan, ez dira sartzen ez finantza-deribatuak, ez merkataritza-kredituak, ez eta beste administrazio publikoen esku dauden Administrazio Publikoaren pasiboak ere.

Zor publikoaren kalkulua Espainiako Bankuak egiten du; horren arabera, 2016ko abenduaren 31n, Administrazio Publikoaren Sektorearen guztizko zorpetzea 3.461 milioikoa zen, erregioko BPGaren ehuneko 18,1 hain zuzen, finkatuta dagoen mugatik –ehuneko 18,5etik– behera.

Egiaztatu dugu zorpetze-eragiketen gehieneko kostu osoak ez duela gainditu Estatuaren finantzaketaren kostua, eragiketaren epe ertainean.

Zenbateko hori, zeina Nafarroako Gobernuaren informazioarekin alderatu baitugu, honela xehakatzen da:

(euroak, milioitan)

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea-Zorra GPD2016 delakoaren arabera	Guztira
Zor Publikoa	1.739
Finantza-entitateekin hartutako maileguak	935
EIBrekin hartutako maileguak	459
Errekurtsorik gabeko "factoring"a	14
Lankidetzta publiko-pribatua Pirinioetako autobia	195
Lankidetzta publiko-pribatua Nafarroako ubidea	119
Guztizko zorpetzea, 2016-12-31n	3.461
Matrikulak guztira hartu eta horien gaineko ehunekoa	18,1
<i>Nafarroako BPGaren gaineko ehunekoa</i>	<i>18,5</i>
Biztanle bakoitzeko gastua (eurotan)	5.401

Iturria: Espainiako Bankua eta Nafarroako Gobernu.

Horrenbestez, finantza-iraunkortasunaren helburua bete da zorpetze publikoa dela eta.

Hari eusten dion bateratze-perimetroaren garrantziari begiratuta, aurreko zorra hurrengo taulan ezarritakoaren arabera banatzen da:

(euroak, milioitan)

Nafarroako Administrazio Publikoaren Sektorea-Zorra GPD-2016 delakoaren arabera	Guztira
Nafarroako Gobernua	3.001
Nafarroako Gobernuaren Lankidetzta publiko-pribatua	314
Sozietate publikoak	141
Fundazio publikoak	5
2016ko abenduaren 31ko zorpetzea, guztira	3.461

Azkenean, zorpetze honen 2009-2016 urteetako bilakaera hurrengo taula honetan islatzen dena da:

(euroak, milioitan)

Zorpetzea (GDPa)	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Zenbatekoa	1.086	1.692	2.443	2.857	3.134	3.197	3.322	3.461
%, Nafarroako BPGaren gainean	5,97	9,10	13,05	15,76	17,85	17,9	18,2	18,1

Ikusten den bezala, zorrak BPGan egiten duen portzentajea gora egiten joan da pixkanaka al-dian zehar, 2016an ehuneko 18,1 izateraino.

2.a Merkataritza-zorraren iraunkortasuna

Ulerzen da helburu hori bete egin dela hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldiak ez duenean gainditzen araudian berankortasuna dela-eta ezarritako gehieneko epea. Epe hori 2016rako eta orokorrean 30 eguneko da.

Nafarroako Gobernuak hilerok argitaratzen du Administrazio Publikoaren Sektorearen ordaintzeko batez besteko aldiaren adierazlearen balioa, uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuan ezarritako metodologiaren arabera.

2016an, hurrengo taulan azaldutakoa da hilerok ordaintzeko egiteko batez besteko aldia:

2016ko ekitaldia	Ordaintzeko batez besteko aldia (egunetan),
Urtarrila	1,34
Otsaila	-4,60
Martxoa	-4,47
Apirila	-3,57
Maiatza	-4,26

Ekaina	-5,30
Uztaila	-5,33
Abuztua	-0,93
Iraila	-2,63
Urria	-3,71
Azaroa	-4,63
Abendua	-9,88

Iturria: Nafarroako Gobernua.

Balio negatiboak erakusten du hornitzaileei ordaintzen zaiela, batez beste, ezarrita dagoen aipatutako gehieneko epea baino lehen.

Horrenbestez, Foru Komunitatearen Administrazio Publikoaren Sektoreak 2016an merkatari-tza-zorren iraunkortasun-printzipioa bete du, eta ez da atzerapenik gertatu hornitzaileentzako ordaintzetan, berandutza-interesik sortu duenik.

3.a Zuhurtzia abaletan eta beste berme batzuetan

Ondorio horietarako, Foru Komunitateak, 2016ko abenduaren 31n, abalei eta beste berme batzuei dagokienez, 153,57 milioiko bolumena du. Abal eta berme horiek Administrazio Publikoaren Sektorea osatzen dutenez beste pertsona fisiko edo/eta juridiko batzuei eman zaizkie –sektore hori SEC'2010 delakoaren arabera definituta–; halaber, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legeak 50 milioiko abalak emateko aurreikuspenak kalkulatu ditu.

Horrenbestez, abalen zenbatekoa 213,37 milioikoa da; zenbateko horrek Nafarroaren BPGaren ehuneko 1,12 egiten du; portzentaje hori legediak zuhurtzia dela-eta aipatzen duen ehuneko 1,5eko mugatik behera dago; horrenbestez, arau hori bete egin da.

Bestalde, ez dago jasota bateratze-perimetrotik kanpoko inongo hirugarrenek banakako zenbatekoetan abalik edo beste bermerik jaso duenik 25 milioiko edo Nafarroaren BPGaren ehuneko 0,1eko mugatik gora.

Horrenbestez, Foru Komunitateko Administrazio Publikoaren Sektoreak 2016ko ekitaldian bete egin ditu ekitaldi horretarako ezarrita zeuden aurrekontu-egonkortasuneko helburuak, bai gastu-arauari dagokionez, bai finantzaketa-beharren bolumenari dagokionez ere, eta bete egin ditu, halaber, finantza-egonkortasuneko helburuak.

Azpimarratu behar dugu, gainera, Nafarroako Gobernuak oroitidazkian berriazko atal bat jarri duela, honako informazio honekin: zorpetzea (GPDaren eraginetarako), emandako abalen egoera eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen sektorea osatzen duten entitateen osotasunari dagokionez. Ez dira jasotzen, ordea, gastu-arauaren betetze-mailari buruzko datuak, horrek oroitidazkia egiteko unean ekarriko lukeen zailtasunarengatik eta konplexutasunarengatik.

IV.5. KONTUEN GANBERA HONEK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honek 2015eko Kontu Orokorrei buruz egindako txostenari dagokionez, honako gomendio hauek ezarri dira edo ezartzeko fasean daude:

- *Hirugarrenen kontabilitate laguntzailearen CAT-GT prozesua garatzen ari da. Horrek aukera emanen du bai tributuen kudeaketa hobetzeko, bai haiek SAPGE21 kontabilitate orokorreko sistemarekin koordinatzeko ere.*
- *Gaur egun Parlamentuan izapidetzen ari da kontratu publikoen foru lege berri bat, Europak gaia dela eta eman dituen zuzentarauei egokitutakoa.*
- *Kontu Orokorren oroitidazkian informazioa jaso da onura fiskalen exekuzio-aurrekontuari buruz, Hitzarmenetik heldu diren fluxu finantzarioei buruz eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arauen betetzeari buruz.*
- *2017an, Nafarroak hitzarmen bat sinatu zuen Estatuarekin Nafarroako Kontratazio Atariko informazioaren eta Estatuko Sektore Publikoaren Kontratazio Plataformaren integrazio informatikoa gauzatzeko.*

Indarrean jarraitzen dute Ganbera honek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako honako oinarritzko gomendio hauek:

- *Foru Komunitatearen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra urgentziaz onestea eta, halakorik egin ezean, bere zabaltasun osoan aplikatzea Kontabilitate Publikorako Plan Orokorra, 2011ko urtarrilaren 1etik indarrean dagoena.*
- *Balantzean islatzea foru funtzionarioen eskubide pasiboetatik heldu diren betebeharrak aktualak.*
- *Foru Komunitatearen ondasun eta eskubide guztien inbentario baloratu bat egitea, ibilgutuaren kontabilitate-saldoak bermatzeko, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorren betekizunei jarraituz. Inbentario hori ekitaldiari buruzko oroitidazkiari gehitu edo erantsi behar zaio.*
- *Ogasun Publikoari buruzko Legean araututako aurrekontu-luzapenerako prozedura garrantzua, eta egokia den aztertzea, betiere Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Legearen eskakizunak jasoz.*
- *Kontu Orokorren oroitidazkian sartzea ekitaldiaren itxieren ondorengo datu garrantzitsuenak.*
- *Kontabilitate sistema garatzea, zerbitzu publikoen kostua zehazteko informazioa eman dezan.*

IV.6. LANGILE-GASTUAK

2016an, langile-gastuak 1.172 milioi eurokoak izan dira; gastu guztien ehuneko 30, hain zuzen. Ehuneko 42 Osasun Departamentuari dagokio; ehuneko 30, Hezkuntza Departamentuari; eta ehuneko 17, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari.

Gastu horiek honela daude banatuta, kontzeptu ekonomikoen arabera:

Langile-gastuak	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Goi-karguak	4.949	3.886	-21
Behin-behineko langileak.	896	2.423	170
Lanpostuko ordainsariak	700.369	719.600	3
Langileen ordainsariak	119.120	119.689	0,5
Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	244.854	254.083	4
Ordainsari aldakorak	49.534	50.412	2
Beste hainbat ordainsari	18.691	22.196	19
1. kapitulua, guztira	1.138.413	1.172.289	3

2015eko urtearekin alderatuta, langile-gastuek ehuneko hiru egin zuten gora (33,88 milioi), baina kontzeptu ekonomikoaren arabera aldeak nabarmen desberdinak dira.

Behin-behineko langileen gastuek ehuneko 170 egin zuten gora, eta goi-karguenak, berriz, ehuneko 21 jaitsi ziren; horren arrazoia da O-NOZeko goi kargu diren langileak birsailkatu egin direla: 2015era arte "goi-kargu" kontzeptuaren arabera kontabilizatzen ziren eta 2016tik aurrera, berriz, O-NOZeko kudeatzailea kenduta, behin-behineko langile moduan erregistratzen dira. Halaber, nabarmentzekoa da "bestelako ordainsariak" kontzeptuak ehuneko 19 egin duela gora, besteak beste 2012an kendutako aparteko lansariaren ehuneko 25 itzultzearen ondorioz.

Plantilla organikoa eta lan-eskaintza publikoa

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa eta langile finkoen eta izendapen libreko zuzendaritza karguetan aritzen diren behin-behineko langileen zerrenda, 2016ko abenduaren 31koak, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren uztailaren 3ko 103/2017 Foru Aginduaren bitartez argitaratu ziren (2017ko abuztuaren 3ko NAO).

Ganbera honek nabarmendu nahi du zeinen berandu argitaratu zen 2016ko plantilla organikoa (2017ko abuztuan). Berandutze hori jada aurreko beste txosten batzuetan gertatu da.

2016ko abenduaren 31ko plantilla organikoa 22.681 lanpostukoa zen: 2015ean baino 187 lanpostu gehiago dira. Honako hau da lanpostu beteen eta hutsen azalpena:

Lanpostuak	Administrazio Erroa		Hezkuntza		O-NOZ		Guztira	
	2015	2016	2015	2016	2015	2016	2015	2016
Betetako lanpostuak	4.970	4.896	6.011	5.995	6.478	6.303	17.459	17.194
Hutsak	1.266	1.382	1.782	1.798	1.987	2.307	5.035	5.487
Deitutako lanpostuak	6.236	6.278	7.793	7.793	8.465	8.610	22.494	22.681

Lanpostuen ehuneko 38 O-NOZi dagozkio; ehuneko 34 Hezkuntzari, eta gainerako ehuneko 28a Administrazio Erroari. Lanpostu guztietatik, ehuneko 76 beteta daude eta gainerako ehuneko 24a hutsik dago.

2016an betetako lanpostuak honela banatzen dira, beren tipologiaren arabera:

Betetako lanpostu mota		2015	2016
Lanpostu ez-oinarrizkoak	Behin-behineko langileak	107	110
	Burutzak	1.433	1.466
Oinarrizko lanpostuak		15.919	15.618
Betetako lanpostuak, guztira		17.459	17.194

2015ekin alderatuta, portzentajeen aldaketa aipagarriena behin-behineko langileen lanpostuetan dago; izan ere, 2016an ehuneko hiru igo dira, hau da, hiru lanpostu. Kuantitatiboki, oinarrizko lanpostuak 301 gutxiago dira, 2015ean baino ehuneko bi gutxiago.

Kontu Orokorren oroitidazkian ageri den moduan, 2.494 lanpostu ez dituzte beren titularrek betetzen, hainbat arrazoi tarteko: eszedentziak, burutzengatiko erreserbak, zerbitzu-eginkizunak, prestakuntzaren zatiko zerbitzu bereziak, sakontzea edo ikerketa, eta abar.

Hutsik dauden lanpostuen zerrenda, egoera eta bilakaera, lanpostuen guztizkoari erreferentzia eginda, honako taula honetan ageri dira:

Kontzeptua	2015	2016
Lanpostuak, guztira	22.494	22.681
Hutsak	5.035	5.487
Lanpostu guztien gaineko lanpostu hutsak (%)	22	24
Aldi baterako betetako lanpostu hutsak	2.944	3.447
Betetako lanpostu hutsak lanpostu hutsen guztizkoaren gainean	58	63

2016an, lanpostu guztien ehuneko 24 hutsik zeuden, eta horien barruan, ehuneko 63 aldi baterako beteta zeuden. 2015ean, portzentaje horiek ehuneko 22 eta ehuneko 58 ziren, hurrenez hurren.

Gobernuak, foru dekretu bidez, plantillaren lau aldaketa onetsi zituen, 108 lanpostu amortizatzeke (Administrazio Erroko 42, O-NOZeko 33 eta Hezkuntza Departamentuko 33), 93 lanpostu sortzeko (49 O-NOZerako, 41 Administrazio Errorako eta hiru Hezkuntzarako) eta egiturazko 111 lanpostu finkatzeko (O-NOZeko 80 eta Osasun Publikoko 31).

2016ko otsailean lan publikoaren eskaintza partzial bat onetsi zen unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat, 200 lanpostukoa; gero, 2016ko ekainean, Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen lan publikoaren eskaintza onetsi zen, 298 lanpostukoa –2015eko langileen berrezarpen-tasari zegozkion–. Eskaintza horiek onetsi zituzten foru dekretuetan ez zen zehazten ez aurreikusitako egutegia, ez deialdiak egiteko datak ere.

Txosten hau idazteko garaian, 2016ko lan publikoaren eskaintzatik obstetrizia eta ginekologiako sei erizain lanpostu daude deitzeko –aurreikusita dago 2017ko urrian izapidetzea–, psikologo zortzi lanpostu, adar ekonomiko APTen bost lanpostu eta gizarte langileen zortzi lanpostu. Aurreko lan publikoaren eskaintzak direla eta, deitzeko gelditu dira gizarte langileen zazpi lanpostu eta E mailako bost lanpostu.

Gizarte langileen lanpostuei dagokienez, esan beharra daukagu 2017ko otsailean deialdi bat argitaratu zela lanpostu horiek aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat egiteko.

Azken batean, datu horiek aztertuta eta kontuan hartuz langileen berrezarpena mugatzen zuen Estatuko oinarrizko araudia, ondoriozta dezakegu betetako lanpostuen kopuruak behera egin duela eta, horrenbestez, lanpostu hutsen kopuruak gora egin duela. Beraz, Foru Komunitateko Administrazioaren enpleguaren behin-behinekotasuna handiagoa da.

Plantilla organikoari eta lan publikoaren eskaintzari buruzko azterketa osatzeko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari 2015eko eta 2016ko langile funtzionarioen guztirako alden eta bajen kopurua eskatu genion; txosten hau idazteko egunean, esan digute datu horiek ezin izan direla lortu, baina lanean ari direla informazio hori jasoko duen txosten bat egiteko.

Irakasle ez-funtzionarioei dagokienez, epai batzuk eman ziren haien kontratuek uztaila eta abuztua ere hartzeko eskubidea onartzen zutenak. Epai horiek betearazteak Hezkuntza Depar-

tamentuari eraginen dion guztizko gastua, langile guztiek erreklamatzeko badute, 6,33 milioi eurokoa dela zenbatetsi da, eta ekarriko luke, halaber, 1,63 milioiko itzulketak egitea; hau da, guztizko gastua 4,7 milioi eurokoa izenen litzateke.

Egiaztatu dugu ezen, 2016an, aurreko ekitaldietatik zor diren nominak ordaindu zaizkiela erreklamatu duten langileei. 1,75 milioi euro egiten dute. Ordainketa horrekin lotuta, 0,45 milioiko itzulketak erregistratu ziren.

2017ko aurrekonturako, zenbait aurrekontu-partida jaso ziren, 4,82 milioi euro egiten dutenak, erreklamazioa aurkezten duten langileen nominen balizko ordainketei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 1,79 milioi ordaindu dira, eta 0,37 ordaintzeko daude; halaber, 2018ko aurrekonturako 3,1 milioi euroko gastuen aurreikuspenak egin dira.

Nafarroako Gobernuaren erretiro-gastuen aurreikuspena

Ganbera honek aurreko txosten batzuetan jada adierazi duen bezala, 2013ko martxoan Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat egin zuen Nafarroako Gobernuaren pentsio-gastuen aurreikuspenari buruz, Foru Komunitatek Administrazioaren Montepioari dagozkion pentsio arrunten aurrekontua egiteko.

Azterlanak 2006-2012 aldirako datu errealak erabiltzen zituen; gainerako urteetarako, urteko gastuaren zenbatespenak egiten dira euro konstantetan, 2013-2087 aldirako parametro batzuen arabera.

Azterlan horren arabera, 2087ra bitarte kalkulaturako guztizko kostua 2.785,64 milioi euro konstantekoa da; zenbateko horretatik, aurreikusita dago ehuneko 77 pentsiodunei ordaintzea eta gainerako ehuneko 23a, berriz, gainerako onuradunei.

2016an, pentsioen benetako gastuak 85,92 milioi euro egin zuen guztira; zenbatespena, berriz, 77,19 milioi konstantekoa zen.

2017-2087 aldirako, kalkulaturako kostuak 2.079 milioi euro konstante egiten du.

Txosten hau idazteko garaian, Ganbera honek lan bat hasia du O-NOZen aldi baterako kontratazioari buruz, eta laster argitaratuko da; gainera, Nafarroako Gobernuak Kontu-hartze Zerbitzuak lan bat egin zuen nomina dela-eta ordaindutako gastuen ordainsari aldagarriari buruz. Aurrekoa kontuan hartuta, ez da inongo fiskalizazio gehigarririk egin langile-gastuak direla eta.

Gure gomendioak:

- *Enplegu eskaintzan adieraztea nolako aurreikuspena dagoen eskaintako lanpostuak betetzeko, eta haietarako dei egitea administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamenduan ezarritako epeetan.*

- *Behar diren neurriak ezartzea dauden lanpostu hutsak betetzeko eta enpleguaren behin-behinekotasuna gutxitzeko, egungo araudiaren testuinguruan.*

IV.7. ONDASUN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTU ARRUNTAK

2016ko ekitaldiko ondasun eta zerbitzuengatiko gastu arruntak 581,34 milioi eurokoak izan ziren, eta gastuen guztizkoaren ehuneko 15 egiten zuten. Nabarmentzekoak dira Osasun Departamentuaren gastuak, ehuneko 48rekin, eta Gizarte Politiketako Departamentuarenak, guztizko gastuaren ehuneko 18rekin. Ekitaldiaren itxieran, gastuen ehuneko 89 ordainduta zeuden.

2015eko ekitaldiaren aldean, ehuneko hiru egin zuten gora, eta honako kontzeptu hauetan izandako igoera nabarmendu beharra dago: protesiak eta laborategiko produktu kimikoak, ehuneko hamarreko igoerarekin; eta sendagaiak, ehuneko bosteko igoerarekin.

Nafarroako Gobernu Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuaren 2016rako barne kontroleko planak gastuen gaineko kontrol finantzario iraunkorra egitea jasotzen du honako arlo hauetan: osasun hornidurak, sendagaiak, osasun itunak, protesiak eta farmazia prestazioak, aurretiko fiskalizaziotik salbuetsita baitaude. Gastu horiek 240,55 milioi euro egin zuten 2016an. Gainera, Ganbera honek 2017ko ekainean txosten bat jaso zuen 2016an ospitale-ingurunean sendagaiak direla-eta egin den kudeaketari buruz; horren gastuak 93 milioi euro egin du urte horretan.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe propioen funtzionamendutik heldutako gastuaren osaera, prozedura eta justifikazioaren lagin bat aztertu ditugu; honako hauek dira datu aipagarrienak:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2015	Zenbatekoa, 2016	Aldea (%) 2016/2015
Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen funtzionamenduaren finantzaketa	6.381.849	6.197.012	-3
Funtzionamendu gastuak Hasierako lanbide kualifikazioko programak, lanbide heziketako ikastetxeen kanpokoak	186.546	169.696	-9
Lanbide Heziketako ikastaroetako funtzionamendu gastuak	12.648	14.699	16
Irakasleei laguntzeko zentron funtzionamendu gastuak	68.315	0	-
Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe propioen funtzionamendu gastuak, guztira	6.649.358	6.381.407	-4

2016an, gastu horien ehuneko 97 ikastetxe horien funtzionamendurako finantzaketa orokorrari dagozkio (mantentzea, konponketak, hornidurak eta abar). Gainerako ehuneko hirua HLKPen simulatutako enpresen lan-metodoaren funtzionamendu gastuen finantzaketari dagokio.

2015aren aldean, gastu horiek ehuneko lau egin dute behera, batez ere ikastetxe horien finantzaketa orokorra ehuneko hiru jaitsi delako; halaber, nabarmentzekoa da 2016an ez zirela finantzatu ILZen funtzionamendu-gastuak, zeren eta Hezkuntza Departamentuari informatu zioten bezala, behar beste funts bazituzten, eta ez baitzuten finantzaketa gehigarri behar.

Kudeaketarako prozedura 250/1992 Foru Dekretuan araututa dago; bertan zehazten da finantzaketa orokorrerako eta HLKPen finantzaketarako oinarria dela ikastetxeei gastuak esleitzeko formula bat aplikatzea, hainbat parametrotan oinarritua (ikasleen kopurua, metro koadroak, igo-gailuak eta abar). Formula hori urtero berrikusi eta doitzen da. Enpresa simulatuen kasuan, kopuru finko bat ezartzen da egiten den jarduera bakoitzeko.

Formula horretan lortutako kalkuluen arabera, ikastetxe bakoitzari dagozkion zenbatekoak lortzen dira, eta ordainketak hiru epetan egiten dira.

Ikastetxeek beren kudeaketaren berri ematen diote Hezkuntza Departamentuari, beren gastuak eta diru-sarrerak agiri baten bidez urtean bi aldiz zehaztuz.

Egindako lanetik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, gastu horien kudeaketarako prozedura arrazoizkoa eta egokia dela; halere, ikastetxeek Hezkuntza Departamentuari aurkezten dioten justifikazioak ez du inongo dokumentu-euskarririk aipatutako zenbatekoei buruz, eta Departamentuak ez du horri buruzko inolako egiaztapenik egiten.

Aurrekoaz gainera, honako gastu hauetan osaera, 2015ekoetik aldea eta sortzapen-printzipioaren aplikazioa aztertu ditugu:

Gastuaren deskribapena	Zenbatekoa, 2015	Zenbatekoa, 2016	Aldea (%) 2016/2015
Osasun itunak	64.701.330	61.559.580	-5
Kanonak	53.041.034	60.124.388	13

Eginiko lanean oinarriturik, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Osasun itunen inguruko gastuek 61,56 milioi euro egin zuten, eta ehuneko bost egin zuten behera 2015ekoekin alderatuta, funtsean O-NOZek 2016ko maiatzean bere gain hartu zuelako Nafarroako Unibertsitatea Klinikako langileen osasun-arreta.

Ondoren zerbitzu hori eman duten hornitzaileen kopurua eta jaso duten zenbatekoa azaltzen ditugu:

Zenbat hornitzaile	Jasotako zenbatekoa
2	>20 milioi euro
5	>miloi bat euro
121	>100.000 euro
118	<100.000 euro

Ikusten denez, osasun-itunak 246 hornitzaileekin egin ziren; horietatik bik milioi bat eurotik gorakoak dira: San Juan de Dios Ospitalea, 22,4 milioirekin (2015ekoa baino ehuneko 13 handiagoa da kopuru hori) eta Nafarroako Unibertsitatea Klinika, 21,3 milioirekin (2015ekoa baino ehuneko 20 txikiagoa da kopuru hori).

- Kanonetatik heldutako aurrekontu-gastua 60,12 milioikoa izan zen 2016an. Hona hemen xehakatzeara:

Kanona	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	Aldea (%) 2016/2015
Donejakue Bideko autobia	38.547	43.741	13
Pirinioetako autobia	14.492	16.380	13
Informatikaren arloko elkarte teknikoek kuotak	2	3	50
Guztira	53.041	60.124	13

Aurreko gastu horien euskarri den dokumentazioa aztertuta, ikusten dugu autobiei buruzko partidek 11 hilabeteren fakturazioa jasotzen dutela (urtarriletik azarora), bai eta aurreko ekitaldiko abenduko fakturazioa eta ekitaldi horren likidazioa ere. Hartara, 2015eko fakturretatik 2016an egotzitako kopurua 4,69 milioikoa da, eta 2017ko aurrekontuan erregistratutako 2016ko gastua, berriz, 4,8 milioikoa.

Halaber, Nafarroako Gobernuak, NEKPk eta Sodenak izapidetutako honako kontratazio-prozedura hauek fiskalizatu ditugu:

Helburua	Mota	Prozedura	Adjudikazio-irizpidea	Lizitazio-prezioa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Kontrol-zentroaren ustiatzea eta mantentzea, bai eta haren menpeko sistema eta instalazioena ere: tunelak, argiteria, semaforoak (2017-2020 aldia)	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	Eskaintzarik onena	6.353.306	5.454.313	14
NEKPren eta haren menpekoak izan eta hari atxikita dauden sozietateen garbiketa-zerbitzua hautatzeko eta adjudikatzeko esparru-akordioa	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	2.688.364*	2.547.116	5
Laguntza teknikoa, inbertsio kolektibo itxiko entitateen kudeaketarako sozietate baten bitartez, tresna finantzario bat abian jarri eta kudeatzeko (SO-DENA)	Laguntza	Irekia	Eskaintzarik onena	3.600.000	3.000.000	17

(* Licitazioaren iragarkia 3.226.037 eurokoa zen guztira, eta horren barrenean sartzen zen adierazitako urteko prezioaz gainera, 537.673 euroko zenbateko finantza, zentroen balizko aldaketa edo zabaltzeetarako.

Aipatutako kontratazio-espeditenteak berrikusita, ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekoa den araudiaren arabera izapidetu zirela.

Gomendatzen dugu kontrol-laginketak egitea unibertsitateaz kanpoko ikastetxe propioen funtzionamendu-gastuak justifikatzeko kudeaketa-kontuen euskarri diren fakturak direla eta.

IV.8. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK ETA KAPITAL- TRANSFERENTZI-ENGATIKO GASTUAK

Transferentzia arruntak

2016an emandako transferentzia arruntek 1.428,24 milioi euro egin zuten. Aitortutako betebeharren gutzitakoaren ehuneko 36 egiten dute. Gastu horiek ehuneko hiru egin zuten behera 2015ekoekin alderatuta, ondoren erakusten dugun bezala:

	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Estatuko Administrazio Orokorrari egindako transferentzia arruntak	617.902	540.856	-12
Fundazioei egindako transferentzia arruntak	7.947	8.603	8
Enpresa publikoei eta beste ente publiko batzuei egindako transferentzia arruntak	78.020	77.074	-1
Toki entitateei egindako transferentzia arruntak	261.189	269.670	3
Transferentzia arruntak enpresa pribatuei	57.801	59.419	3
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentzia arruntak	448.204	472.588	5
Kanpora egindako transferentzia arruntak	46	30	-35
Guztira	1.471.108	1.428.240	-3

Ikusten denez, nabarmena da zenbat jaitsi diren Estatuari egindako transferentziak, ehuneko 12 hain zuzen (77 milioi euro gutxiago), funtsean jada aipatutako hitzarmen ekonomikoarekiko desadostasunarengatik eta 2013ko eta 2014ko sektore elektrikoko zergen konpentsazioarengatik; bestetik, nabarmendu behar dugu familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentziek ehuneko bost egin dutela gora.

Kapital-transferentziak

2016an baimendutako kapital-transferentziak 92,02 milioi eurokoak izan ziren. Ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bi egiten dute, eta ehuneko 22ko jaitsiera izan zuten 2015arekin alderatuta, ondoren erakusten den bezala:

	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	Aldea (%) 2016/2015
Fundazioei egindako kapital-transferentziak	5.131	2.621	-49
Enpresa publikoei	715	656	-8
Toki entitateei egindako kapital-transferentziak	19.831	17.384	-12
Kapital-transferentziak enpresa pribatuei	51.407	38.947	-24
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako kapital-transferentziak	40.333	32.411	-20
Guztira	117.417	92.019	-22

2016an, transferentzien ehuneko 42 enpresa pribatuei egin zitzaizkien, ehuneko 35 familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei, ehuneko 19 toki entitateei, eta gainerako ehuneko laua fundazioen eta enpresa publikoen artean banatu zen.

Oro har, kontzeptu ekonomiko guztiek jaitsierak izan dituzte 2015ekoekin alderatuta. Nabarmendu beharra dago enpresa pribatuentzako kapital-transferentziak ehuneko 24 jaitsi direla, eta familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzendutakoak, berriz, ehuneko 20 jaitsi direla.

2016an egindako transferentzia arrunten laginketa bat berrikusi dugu. Honako hau da:

(euroak, milakotan)

Kontzeptua	Gastua 2015ean	Gastua 2016an	Aldea (%) 016/2015
Kotizazio gabeko pentsioak	13.497	13.943	3
Abokatuen elkargo profesionaleri egindako transferentziak	2.891	3.168	10

Egiatzatu da ezen, orokorrean, berrikusitako gastuak zuzen baimenduta, kontu-hartzaitzak onartuta, justifikatuta eta kontabilizatuta daudela, eta diru-laguntzak haiei buruzko arauetan ezarritakoaren arabera eman, justifikatu eta ordaindu direla; halere, doako justiziaren esparruan, lanbide elkargoak dira diru-laguntza horiek kudeatzeaz eta funts horiek abokatu eta prokuradoreei emandako zerbitzuen truke helarazteaz arduratzen diren entitate laguntzaileak. Elkargo horiek ez dute aipatutako profesionaleri funts horiek entregatu izanaren ziurtagiririk bidaltzen, eta horrekin araudian ezarritakoa urratzen dute.

Gomendatzen dugu zerbitzuak ematen dituzten profesionaleri funtsak entregatu izanaren justifikazioa eskatzea.

IV.8.2. ESTATUAREKIKO HITZARMEN EKONOMIKOA.

Nafarroak, bere foru-araubidearen indarrez, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean 1990eko uztailaren 31n sinatutako hitzarmen ekonomikoari jarraituz gauzatzen du bere finantza- eta tributuz-jarduera. Hitzarmen hori abenduaren 26ko 28/1990 Foru Legean araututa dago.

Hitzarmen horrek harmonizazio fiskalerako irizpideak ezartzen ditu, bai eta Nafarroak –Foru Komunitateak bere gain hartzen ez dituen estatuaren zamak direla-eta eta tributuen diru-bilketaren doikuntzetarako– egin beharreko ekarpena kalkulatzeko metodoa ere.

Hitzarmena hainbat aldiz gaurkotu eta aldatu da. Azkena 2015ean izan zen, ekainaren 24ko 14/2015 Legeari jarraituz, eta aldaketa nagusiak Nafarroako 2015eko Kontu Orokorreari buruzko txostenean azaldutakoak dira.

Honako hauek izan dira hitzarmen ekonomikoari dagozkion gastuak eta diru-sarrerak, 2016ko aurrekontuan aitortuak, eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa:

(euroak, milakotan)

Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Estatuarentzako ekarpena	591.043	520.687	-12
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatikoa konpentsazioa	26.859	20.169	-25
Gastu-partiden guztizkoa-Hitzarmena	617.902	540.856	-12
BEZarengatikoa doikuntzak	811.648	835.522	3
Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zerga bereziengatikoa doikuntza fiskala	-37.992	-37.473	-1
Garagardoaren gaineko zerga bereziengatikoa doikuntza fiskala	4.666	4.406	-6
Tabakogaien gaineko zerga bereziengatikoa doikuntza fiskala	16.967	8.114	-52
Hidrokarburoen gaineko zerga bereziengatikoa doikuntza fiskala	-50.825	-10.034	-80
<i>BEZarengatikoa eta zerga bereziengatikoa doikuntzak atal honetan, guztira</i>	<i>744.464</i>	<i>800.535</i>	<i>-48</i>
Mendekotasunari arreta eskaintzea	11.310	11.626	3
Hitzarmeneko diru-sarreren partidak, guztira	755.774	812.161	8

Gastuak

- 2016an estatuari egindako ekarpenak 520,69 milioi euro egin zuen. Ekitaldian aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 13 da, eta ehuneko 12 egin du behera 2015ekin alderatuta.

2015eko ekitaldia 2015-2019 bosturtekorako oinarri-urtea izan zen; hala eta guztiz ere, ez zen akordio batera iritsi oinarriko ekarpenari buruz Hori dela eta, arauak bigarren xedapen iragankorrean ezartzen duenari jarraituz, behin-behineko ekarpen likido bat finkatu zen, eguneratze-adierazlea aplikatuz, aurreko bosturteko beste urte bat balitz bezala. Akordiorik ez zegoenez,

2016an irizpide hori bera erabili zen behin-behineko ekarpen likidoa finkatzeko: 613,69 milioi eurokoa izanen zela ezarri zen.

2016ko apirilean, Koordinazio Batzordeak akordio bat izenpetu zuen azpibatzerde bat sortzeko, horren bidez ekarpen ekonomikoa gaurkotzeko lan teknikoak sustatu eta koordinatzeko eta 2015-2019 aldiko zeharkako zergen bitarteko doikuntzak gauzatzeko. Halere, azpibatzerde hori ez zen 2016an eratu, Nafarroako ordezkariak horretarako errekerimenduak eginda ere. Hori dela eta, 2016ko lehenengo hiru hiruhilekoetako gastuak arestian aipatutako zenbatekoa (613,69 milioi) kontuan hartuta ordaindu ziren.

2016ko urrian, Nafarroak Estatuari txosten bat igorri zion ekarpena zehazten duten eta bien arteko harreman finantzarioak arautzen dituzten aldagai desberdinei buruzko azterlan exhaustibo baten emaitzekin (Estatuko Aurrekontu Orokorraren aurrekontu-partida guztien, aplikatutako gaurkotze-indizeen, kontsumo-indizeen, zergen kudeaketari buruzko indizeen eta eta abarren azterketa), azpibatzerdea eratu eta hura kontuan izan zezan.

Azpibatzerdeak eratu gabe jarraitu zuen, eta 2016an Nafarroak laugarren hiruhilekoko gastua aitortu eta ordaindu behar zuenean, Nafarroako Gobernuak aurrez erabilitako irizpide hori aldatu zuen, txosten tekniko eta juridiko bat oinarri hartuta; gaiaren aurrekariak deskribatu ondoren, dokumentu horrek aipatzen zuen Nafarroa nabarmen aurreratuta zegoela 2015-2019 bosturtekoko harreman finantzarioak zehazteko azterlanetan, eta ondorio horiek 2016ko urrian igorriak zizkiola Estatuari, aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala.

Gainera, aipatzen zen ezen, azterlan horiek kontuan hartuta, ekarpen likido horren (613,69 milioi) aplikazioaren luzapen mugagabeak kalte aipagarria zekarkielan Nafarroako kontu publikoen egonkortasunari eta iraunkortasunari; azpibatzerdea, ordea, ez zen eratu alderdi horiek aztertzeko. Jarraitzen du esanez ezen, harreman finantzarioak adostu behar badira ere, azterlan horietan bildutako agertoki ezkorrenak ere kalte hori justifikatzen zutela; hori dela eta, proposatzen da bigarren xedapen iragankorra aplikatu beharrean, 613,69 milioiko behin-behineko ekarpena aintzat hartzea inplikatzeko baitu, 63.2 artikulua hartzea kontuan; izan ere, horrek berekin dakar ekarpena ezartzea adostutako azken behin-behineko ekarpen likidoaren arabera, zeina 2012koa izanen balitzateke (520,69 milioi).

Ordura arte egindako ordainketak kontuan hartuta, Nafarroak Estatuari ordaintzeko zuena 60,24 milioi ziren, eta horixe da egiazki ordaindu zen zenbatekoa. Estatuak ez zuen proposamen hori onartu, eta haien ustez Nafarroak ordaindu behar zuenaren eta egiazki ordaindu zenaren arteko aldea 93 milioi eurokoa izan zen.

- Hitzarmenaren beste gastua lotuta dago sektore elektrikoaren gaineko zergen konpentsazioarekin, zeina 2016an 20,17 milioi eurokoa izan baitzen; zenbateko hori 2015ekoa baino ehuneko 25 txikiagoa izan zen, zeren eta urte horretan 2013-2014 aldiko behin-behineko likidazioak jaso baitziren. Kasu horretan, Estatuak interpretatu zuen Nafarroako zenbateko hori ez baizik eta 10,45 milioi euro ordaindu behar zituela.

- Azken batean, 2015eko (2015-2019 bosturtekoaren oinarri-urtea) ekarpen ekonomikoari buruzko akordiorik ez egoteagatik kontuan hartu beharreko zenbatekoei buruzko interpretazioan dauden alde horien baturak eragin zuen Nafarroak Estatuari azken horrek uste zuena baino 82,55 milioi euro gutxiago ordaintzea, honako taula honetan erakusten den bezala:

	(euroak, milakotan)		
	Nafarroaren irizpide- dea	Estatuaren irizpide- dea	Aldea
Estatuarentzako ekarpena	520.687	613.687	93.000
Sektore elektrikorako zergarengatik konpentsazioa	20.169	9.722	-10.447
Hitzarmenaren gastuak, guztira	540.856	623.409	82.553

Ekitaldiaren itxieraren ondorengo egitate gisa, nabarmendu behar dugu 2017ko urtarrilean, azkenean, lantalde tekniko bat sortu zela, bosturtekoaren oinarri-urtearen ekarpena finkatzeari buruz lan egiten hasteko; Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren esanetan, negoziazioak laster amaituko dira. Hitzarmenerako Koordinazio Batzordeak kasuko akordioak balioz-

kotu behar ditu, eta Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministroak urriaren 18an Diputatuen Kongresuan baieztatu zuen bezala, onespén hori urtea amaitu baino lehenago emanen da.

Gainera, azaldutako desadostasun horrek eragin zuen 2017ko lehen hiruhilekoan Estatuak Nafarroari egindako diru-sarrera, BEZa doitu eta konpentsatzekoa, txikiagoa izatea aipatutako 82,55 milioi euroko zenbatekoan; gero, 2017ko bigarren hiruhilekoaren ordainketan, Nafarroak ekarpena dela-eta Estatuari eginiko diru-sarreraren berriz ere deskontatu zuen zenbateko hori. 2017ko hirugarren hiruhilekoan, ez Nafarroak, ez Estatuak ez dute inongo doikuntza edo konpentsaziorik egin zenbateko horrekin.

Tributu bidezko diru-sarrerak

Aplikaturako doikuntzak zeharkako zergei, BEZari eta zerga bereziei dagozkie, eta hitzarmen ekonomikoan aurreikusitako formulen eta metodoen arabera kalkulatu dira.

Bosturteko berri horretarako doikuntza fiskalak finkatzeko metodologia adostu ez denez 2015-2019 bosturteko berrirako, eta araudiari jarraituz, behin-behinekoz aplikatu dira aurreko bosturtekorako adostutako metodoak, bosturtekorako behin betiko metodoa ezartzen denean bidezkoa den erregularizatzea galarazi gabe.

Hitzarmenetik heldu diren diru-sarrerei dagokienez, 2016ko otsailaren 3an, Auzitegi Gorenaren Salak dekretu bat eman zuen, foru lurraldean fabrikaturako ibilgailuen merkaturatzetik heldutako BEZari buruzko administrazioarekiko auzi-errekurtsioa amaitutzat ematen zuena, eta horrek ekarri zuen autoen behin-behineko artxibatzea behin betiko artxibatze bihurtzea.

Hitzarmeneko aurrekontuetako gastuen eta diru-sarreraren 2012-2016 aldiko bilakaera

Hurrengo taulan erakusten dugu Hitzarmeneko aurrekontuko partida nagusiek 2012-2016 aldian izan duten bilakaera:

(euroak, milakotan)						
Hitzarmena-Aurrekontuko partidak	2012	2013	2014	2015	2016	Aldea (%) 2016/2012
Estatuarentzako ekarpena	520.687	571.859	555.835	591.043	520.687	0
Sektore elektrikoaren gaineko zergengatikoko konpentsazioa				26.859	20.169	-
Gastu-partiden guztizkoa-Hitzarmena	520.687	571.859	555.835	617.902	540.856	4
BEZarengatikoko doikuntzak	483.270	646.767	750.869	811.648	835.522	73
Fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatikoko doikuntzak	-50.703	9.273	-32.095	-67.184	-34.987	-31
Behin betiko likidazioa Estatuarentzako ekarpena	8.066					-
Mendekotasunari arreta eskaintzea	12.569	11.554	12.219	11.310	11.626	-8
Hitzarmeneko diru-sarreraren partidak, guztira	445.136	667.595	730.994	755.774	812.161	83

Ikusten denez, 2016an Estatuari egindako ekarpenari dagokion aurrekontu-partida ez da aldatu 2012koarekiko, 2016ko abenduan erabakitako irizpide-aldaketaren ondorioz. 2015ean eta 2016ko lehen hiru hiruhilekoetan erabilitako irizpidea aplikatzen jarraitu izan balitz, aurrekontu-partida 613,69 milioikoa izanen zen, eta horrek aldian ehuneko 18ko hazkunde bat ekarriko luke (93 milioi).

BEZarengatikoko doikuntzek ehuneko 73 egin dute gora, haien kalkulurako 2012ko maiatzean adostutako metodologia-aldaketaren eraginez. Inguruabar horrek justifikatzen du 2013tik aurrera hitzarmenetik heldutako diru-sarrerak hartatik datozen gastuak baino handiagoak izatea.

IV.9. INBERTSIOAK ETA IBILGETU EZ-FINANTZARIOA

2016ko inbertsioak 84,86 milioi eurokoak izan ziren, aitortutako betebeharrak guztien ehuneko bi, ehuneko 87ko betetze-mailarekin. Kontzeptu ekonomikoen arabera gastua, berriz, honako hau izan zen:

(euroak, milakotan)

	Gastua 2015ean	Gastua 2016an	Aldea (%) 2016/2015
Lurrak eta ondasun naturalak	2.155	713	-67
Herri-lanak	46.367	34.033	-27
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak	10.027	15.408	54
Makineria, instalazioak eta tresneria	1.718	1.071	-38
Garraio materiala	1.112	1.728	55
Altzariak eta tresneria	13.048	7.546	-42
Informazioa prozesatzeko ekipoa	1.822	3.301	81
Bestelako ibilgetu materiala	2.994	3.045	2
Ibilgetu ez-materiala	12.618	18.010	43
Guztira	91.861	84.855	-8

Inbertsio nagusiak honako kontzeptu hauei dagozkienak dira: ehuneko 37 errepide eta bideei, ehuneko 16 eraikinei, ehuneko 16 aplikazio informatikoei (horietatik, ehuneko bost Microsoften lizentziak erosteko izan da, 3,94 milioi euro) eta ehuneko lau ekipamendu medikoei.

Inbertsioen ehuneko 41 Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagozkie, eta ehuneko 26, berriz, Osasun Departamentuari.

2016ko inbertsioak 2015ean egindakoak baino ehuneko zortzi txikiagoak izan ziren. Gastu horrek ehuneko 69 egin du behera 2010ekoekin alderatuta, eta 273,59 milioikoa izatetik 84,86 milioikoa izatera pasa da.

Erabilera edo zerbitzu publikoko azpiegituretan egindako inbertsioak -33,9 milioi euro 2016an, funtsean errepideetan egindako lanei dagozkienak- ez daude jasota balantzearen ibilgetu materialean; izan ere, ibilgetuaren galeren kontzeptuan izandako emaitza ekonomikoari egozten zaizkio.

Ibilgetu ukiezinetan egindako inbertsioak ere ez dira jaso ibilgetu ukiezin moduan balantzearen aktiboan; izan ere, emaitza ekonomikoaren kontuari egozten zaizkio ibilgetu ez-materialaren galera gisa. 2016an 18 milioi euro izan dira.

Ez da definitu, ezta aplikatu ere, amortizazio-politika bat ibilgetuaren ondasunen narriatzea islatzeko.

Kontu Orokorren oroitidazkian ez dago informaziorik ondasun eta eskubideen inbentarioari buruz, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legean ezarritakoaz bestera. Horri dagokionez, aurreikusita dago 2018an proiektu bat hastea ibilgetuaren jabetzan izandako altak, bajak, aldaketak eta abarreak jasotzeko.

Honako gastu hauek aztertu ditugu:

(euroak, milakotan)

Gastuaren deskribapena	2015	2016	Aldea (%) 2016/2015
Bide-sarearen kontserbazioa	25.958	21.881	-16
Zentro Psikogeriatrico Plan Zuzendariko obrak	3.734	3.695	-1

Egiaztatu dugu gastu horiek onetsita, justifikatuta eta kontu-hartzaitzak aztertuta daudela, eta epean ordaindu direla; horri dagokionez, honako hauek azpimarratu behar ditugu:

- Bide kontserbazioaren arloko gastua 240,33 milioi eurokoa izan da azken hamar urteetan; haren bilakaera honako hau izan da:

(euroak, milakotan)

Urtea	Gastua	Hartzekodunen kopurua
2007	26.522	17
2008	20.401	16
2009	20.389	13
2010	21.000	12
2011	16.094	13
2012	23.542	13
2013	38.548	26
2014	25.994	15
2015	25.958	18
2016	21.881	14

Urteko batez besteko gastua 24 milioi euro ingurukoa da, eta hartzekodunak 16 dira.

2010eko azaroan, 2010-2018 aldirako Errepideen Plan Zuzendaria onetsi zen, eta hartan 225 jarduketa jaso ziren, 1.661 milioi euroko inbertsioarekin; kopuru horretatik, jo zen 1.248 milioi bide horiek zabaltzera eta hobetzera bideratuko zirela eta 413 milioi, berriz, bide-sarearen kontserbaziora.

Gastu horretatik, 1.331 milioi Nafarroako Gobernuaren aurrekontu orokorren kargura finantzatu ziren, eta gainerako 330 milioiak, berriz, honela: ehuneko 70 (232 milioi) itzaleko bidesariaren kontzesioen bitartez; ehuneko 29 (96 milioi) entitateekin (Sustapen Ministerioa, Iruñeko Udala eta abar) sinaturiko hitzarmenen bitartez, eta gainerako ehuneko bata (bi milioi euro) Nafarroako Inbertsioak eta Azpiegiturak Sustatzeko Sozietatearekin (SPRIN) –jada desagertua– sinatutako hitzarmen bate bitartez. Plan horrek aurreikusten du bera 2014an berrikusi eta gaurkotzea.

Errepideei buruzko 5/2007 Foru Legearen arabera, plan hori, Parlamentuak onetsi ondoren, lurralde antolamendurako tresna baten gisara hartu beharko litzateke, eta Foru Komunitateko Administrazioak hura eduki beharko luke arau.

Bideak zabaltzeko, hobetu eta kontserbatzeko jarduketak egiteko ardura duen departamentuak urtero oroitidazki bat egiten du, non plan horren betetzea aipatzen baitu, sarea zabaltzeko jarduketari dagokienez. Bide-sarearen kontserbazioari dagokionez, Departamentuak berriazko oroitidazki bat egiten du, non jasotzen baitira bide-kontserbazioa, errepideen kontrolerako dauden zentroak eta bide segurtasunarekin zerikusia duen guztia direla-eta egindako jarduketak. Ez dago korrelaziorik oroitidazki horren eta plan zuzendariaren artean; horrenbestez, ezin dugu alderatu ea kontserbazioaren arloko jarduketak plan horretan aurreikusitakoak ziren ala gehitutako beste batzuk ziren.

2010etik 2016ra bitarteko aurrekontu-gastua lortu dugu, kontuan hartuta aipatutako oroitidazkietan jasotako informazioa; honako hau da emaitza:

(euroak, milioitan)

Urtea	Errepideen plan zuzendarirako aurreikusitako gastua			Egindako gastua (erabilitakoa)	Erabilitakoa/aurreikusitako gastua (%)
	Zabaltzeko eta hobetzeko	Kontserbatzeko	Guztira		
2010	34,9	24,0	58,9	Daturik ez	-
2011	22,7	37,5	60,2	36,9	61
2012	58,4	37,5	95,9	33,9	35
2013	64,4	35,6	100,0	25,6	26
2014	182,1	52,8	234,9	Daturik ez	-
2015	180,2	51,3	231,5	37,9	16
2016	134,1	53,8	187,9	34,9	19

Azken batean, departamentuak emandako datuetatik eta ateratutako aurrekontu-gastutik exekuzio-portzentaje txikia ondorioztatzen da.

- Egiaztatu dugu bide-kontserbazioaren arloko fakturretatik lau araudian ezarritako 30 eguneko epea gaindituta ordaindu zirela; hain zuzen ere, 41, 52, 73 eta 84 egunen buruan ordaindu ziren.

- Zentro Psikogeriatrikoko obrei dagokienez, nabarmena da haren exekuzioan gertatutako atzerapena, nahiz eta horren arrazoiak kontratistaz bestekoak izan. 2017ko ekainean, luzapen bat eskatu zen obraren exekuziorako, eta horretarako baimena eman egin zen.

Nafarroako Gobernuaren zein haren enpresa publikoen inbertsioen honako adjudikazio-espeditente hauek berrikusi ditugu:

Helburua	Prozedura mota		Adjudikazio-irizpidea	Lizitazio-prezioa	Adjudikazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren baja (%)
Buztintxuri HLHIP berria eraikitzea	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	3.686.622	3.178.123	14
Castejonen DBHI berria eraikitzea	Obrak	Irekia	Eskaintzarik onena	2.712.617	2.099.039	23
Ledean HUA bat egitea Ledeko hondakin-urak tratatzeko (NILSAk adjudikatu zuen)	Obrak	Irekia	Preziorik merkeena	827.642	605.200	27
Automobilgintzako pabiloiaren eraikuntza Uharteko BHlan	Obrak	Negoziatua, Europar publizitate-terik egin gabe	Eskaintzarik onena	488.450	483.565	1
Irantzuko monasterioko komun publikoen erreforma	Obrak	Negoziatua, Europar publizitate-terik egin gabe	Preziorik merkeena	60.951	56.623	7

Oro har, aztertu diren kontratazio-espeditenteak adjudikatu eta betearazi ziren kontratuei buruzko legediaren arabera eta haietatik heldu diren gastuak onetsita, fiskalizatuta, justifikatuta eta zuzen kontabilizatuta daude. Horiek aztertuta, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Buztintxuriko eta Castejongo kasuetan, bermea, zeina 127.125 eta 83.962 eurokoa baitzen, hurrenez hurren, zuinketa egiaztatzeako aktaren eta obraren hasieraren ondoren jarri zen.

- Uharteko inbertsioaren kasuan, hasierako adjudikazio-hartzaileak uko egin zion kontratuari, eta 488.450 euroko zehapena ezarri zitzaion, baina ez ziren bidezko izapideak egin hura erreklamatzeko (txosten hau idazteko garaian, izapideak jada hasi dira); hurrengo bi lizitatzailerek ez zuten kontratua onartu, eta adjudikazio-prozesuan laugarren tokian gelditutakoa izan zen obrari ekin ziona.

Hornitzaile hori gero hartzekodunen konkurtsoan sartu zen, eta uko egin zion, halaber, kontratuari. Egiteko geratu dira egiazki egindako zatiaren likidazioa eta obrari uko egiteagatik zehapena; esan digutenaren arabera, likidazio hori obra amaitzen denean ordainduko da.

Ekitaldiaren itxieraren ondorengo egitate garrantzitsu gisa, nabarmendu behar dugu kontratua 2017ko ekainean adjudikatu zela berriz ere, eta ezinezko gertatu dela zentroa 2017-2018 ikasturtean berriz ere funtzionatzen hastea, hala baitzegoen aurreikusita.

Gure gomendioak:

- *Errepideen Plan Zuzendariaren edukia berrikustea eta hura aldatzea egin nahi denaren errealtateari begiratuta.*

- *Kasu guztietan, araudian hornitzaileei ordaintzeko ezarritako epe guztiak betetzea.*

- *Egoera ezagutu bezain laster, egoki diren jarduketak egin beharko dira ezarritako zehapenen likidazioa izapidetzeko.*

- *Bermea jar dadin eskatzea, zuinketa eta lanen hasiera egiaztatzeako akta baino lehen.*

- *Amortizazioei eta narriatzei buruzko politika bat zehaztea, ibilgetu ez-finantzarioaren elementuen balio-galera islatzeko eta urtero behar den amortizaziorako zuzkidura jartzeko.*

- *Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrean jasotako kontabilitate-irizpideak aplikatzea beren zabaltasun guztian ibilgetuaren eragiketetan (lagapenak, atxikipenak, azpiegituretan egindako inbertsioak eta abar).*

IV.10. ZERGAK, TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Zergak

2016ko ekitaldian zergengatik aitortutako eskubideek 3.206,88 milioi euro egin zuten. 2015ean baino ehuneko hiru (97 milioi) gehiago dira eta eskubideen guztizkoaren ehuneko 79 egiten dute.

Ondoren, 2016an aitortutako eskubideak erakusten ditugu, bai eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa ere, zerga-figura desberdinei dagokienez:

(euroak, milakotan)

Zergak	Aitortutako eskubide garbiak		Diru-bilketa garbia		2016/2015 aldea (%)	
	2015	2016	2015	2016	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
PFEZa	1.106.869	1.180.097	1.106.869	1.168.323	7	6
Sozietateak	213.557	205.097	211.420	205.097	-4	-3
Egoiliar ez direnen errenta	7.093	6.444	6.593	6.384	-9	-3
Ondarea	44.741	31.845	44.741	30.490	-29	-32
Oinordetzak eta dohaintzak	58.087	43.051	55.623	43.051	-26	-23
Banku-gordailuen gainean	4.594	3.118	2.892	3.116	-32	8
Energia-ekoizpenaren gainean	14.034	22.119	13.453	21.794	58	62
Saltoki handiak	0	3.302	0	3.113	-	-
Loterietako eta apustueta sariak	18.777	4.940	18.777	4.940	-74	-74
Besterik	20	0	20	0	-	-
1. Zuzeneko zergak	1.469.787	1.500.013	1.460.388	1.486.308	2	2
BEZa	1.184.257	1.221.862	1.175.585	1.171.814	3	-4
Zerga bereziak	394.647	423.309	392.260	422.112	7	-7
Kontsumoen gaineko beste zerga berariazko batzuk	-	-9.364	-7.492	-5.544	22	-26
Aseguru primen gaineko zerga	19.355	19.715	19.355	19.715	2	2
Ondare-eskualdaketak	38.763	37.056	37.536	37.056	-4	-1
Egintza juridiko dokumentatuak	9.567	11.741	9.383	11.741	23	25
Joko-jarduerak	2.700	1.556	2.700	1.556	-42	-42
Berotegi-efektuko gas fluordunak	372	992	362	928	166	156
2. Zeharkako zergak	1.641.986	1.706.868	1.692.689	1.659.378	4	2
Zergak, guztira	3.109.758	3.206.881	3.090.077	3.145.686	3	2

Horiek aztertuta, ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Daukaten kopurua dela-eta, honakoak dira nabarmentzekoak: BEZa, 1.221,86 milioi euroekin, eta PFEZa, 1.180,09 milioirekin. Guztizkoaren ehuneko 38 eta 37 egiten dute, hurrenez hurren.

- Hiru zerga-figura handietatik, BEZak eta PFEZak ehuneko hiruko (38 milioi) eta zazpiko (73 milioi) hazkundea erakusten dute, hurrenez hurren, azken kasu horretan, besteak beste 2016ko zerga-erreformaren ondorioz; bestetik, sozietateen gaineko zergak ehuneko lau egin du behera (zortzi milioi, gutxi gorabehera).

- Halaber, azpimarratu behar dugu energia-ekoizpenaren bidezko diru-sarrerek gora egin dutela (zortzi milioi gehiago), 2015eko ekainaren 26an indarrean sartu zen Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketaren ondorioz; aldaketa horrek berekin ekarri zuen tributuzko betebeharrak data horretatik aurrera ordaintzea Nafarroan. Lehenengo ordainketa zatikatua 2015eko irailean aurkeztu zen Nafarroan, eta aurreko urteetakoak metatzeko aukera egon zen.

- Aplikazio informatikoen arteko lotura egokiaren faltatik heldutako arazoek eragiten dute SAPGE21 kontabilitate-sistemaren diru-bilketa garbia arrazoizkoa ez izatea; izan ere, aurtengo ekitaldiko eta aurreko ekitaldietako eskubideek sortutako kobrantzak biltzen ditu. Hori dela eta, CAT-GTK emandako informazioarekin, zenbatespen bat egiten da ekitaldi honetakoak izanen lira-

tekeen eta aurreko urteetatik etorriko liratekeen kobrantzekin; kalkulu horietan oinarrituta, Kontabilitate Zerbitzuak beste zenbatespen bat egiten du kopuru horiek ekarriko luketenari buruz. Bigarren zenbatespen hori da azkenean zerga bakoitzaren diru-bilketa garbi moduan ageri dena.

Aurrekoa kontuan hartuta, diru-bilketa garbia 3.145,69 milioikoa izatera iritsi zen, 2015ekoa ehuneko bi gaintuta; igoera aipagarrienak honakoei dagozkienak dira: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ehuneko seirekin (61 milioi), eta energia elektrikoaren produkzioaren gaineko zerga, ehuneko 62rekin (zortzi milioi).

- BEZari dagokionez, kontuan hartu beharra dago ea kudeaketa Nafarroak zuzenean egiten duen edo Estatuarekiko hitzarmen ekonomikoaren bitartez egindakoari dagokion. Hartara, honako hau da xehakatzea aurreko irizpideari jarraituz:

(euroak, milakotan)

Aitortutako BEZa	2014		2015		2016	
	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa	Zenbatekoa	Ehunekoa
Zuzeneko kudeaketa	361.073	32	372.609	31	386.340	32
Hitzarmenaren doitzea	750.869	68	811.648	69	835.522	68
BEZa, guztira	1.111.942	100	1.184.257	100	1.221.862	100

Ikusten den bezala, aitortutako eskubide gehienak sortzen dira Hitzarmenetik heldu diren doikuntzen ondorioz, Foru Ogasunak eskubide horien guztien heren bat zuzenean kudeatuta.

Bestalde, 2016ko ekitaldiaren itxieran konpentsatu beharreko BEZa, kontuan hartuz itzulketa eskatzeko eskubidea edo konpentsazioa egitekoa bost urteren buruan iraungitzen dela (itzulketa hurrengo ekitaldiko urtarrietik aurrera eska daiteke), 174,54 milioikoa da. BEZ hori CAT-GT kontu batean jasotzen da. "BEZ orokorra" izena dauka kontuak, eta ez da kontabilitate orokorrean islatzen. Aurrekontuari egozten zaio itzultzen do konpentsatzen denean, baldin eta konpentsaziotik Zerga Ogasunari ordaindu beharreko saldo bat ateratzen bada. Oroitidazkian ez da kontu horri buruzko informaziorik eman.

- CAT-GT delakotik kudeatutako itzulketak –eskudirukoak nahiz konpentsaziokoak izan–, orokorrean aurrekontu-likidaziora aldatu direnak hartutakoekin batera, 1.223,12 eurokoak izan dira⁶, Estatuarekiko doikuntzak kontuan hartu gabe; kopuru hori ehuneko hamar handiagoa da 2015ekoa baino. Itzulketen izaerari erreparatuta, haien ehuneko 84 eskudirutan egin dira.

Ondoren, 2016ko zerga garrantzitsuenen itzulketak azaltzen ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta:

(euroak, milakotan)

Zergen itzulketa	2015	2016
PFEZa	211.068	214.813
Sozietateak	78.053	81.604
BEZ zuzeneko kudeaketa	806.042	902.771

Azken urteetan gertatu den bezala, zuzenean kudeatutako BEZa da itzulketa bolumen handiena sortzen duena; guztizkoaren ehuneko 74 inguru dira.

Bestalde, aitortutako eskubideetatik zuzenean deskontatutako zergen itzulketak 0,29 milioikoak izan dira; aurreko ekitaldikoak, berriz, 33,04 milioikoak izan dira. Jaitsiera horren arrazoia da 2015ean erregistratutako hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketa, 2013ko eta 2014ko ekitaldiei dagozkien likidazioengatik; itzulketa hori 32,75 milioi eurokoa da.

⁶ Itzulketa horietaz gainera, Estatuarekiko doikuntzekin zerikusia dutenak daude, zeinek 92,37 milioi euro egin baitute guztira 2016an; 2015ean, berriz, 88,82 milioi izan ziren.

- Kontu Orokorren oroitidazkiak informazioa dauka zerga-onuren exekuzioari buruz; honako hau da haren laburpena:

(euroak, milakotan)

Zergak	Aurrekontua Onurak fiskal- lak, 2016	Emitzak 2016	Gauzatzearen ehunekoa
PFEZa	392.931	392.461	99,9
Sozietateak	92.171	116.137	126,0
Ondarea	32.515	27.533	84,7
Egoiliar ez direnen errenta	5.918	5.098	86,1
Oinordetzak eta dohaintzak	8.580	8.244	96,1
1. Zuzeneko zergak	532.115	549.473	103,3
BEZa	765.007	757.193	99,0
Zerga bereziak	65.557	61.452	93,7
Aseguru primen gaineko zerga	7.831	7.700	98,3
Ondare eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak	5.207	5.211	100,1
2. Zeharkako zergak	843.602	831.556	98,6
Onura fiskalak, guztira	1.375.717	1.381.029	100,4

2016ko onura fiskalak, oroitidazkian jasotako informazioaren arabera, 1.381 milioi eurokoak dira, eta aurrekontuan jasotako ia berak izan dira; nabarmena da onura horiek 2016eko ekitaldiko zergengatik aitortutako eskubide garbien ehuneko 43 direla.

- Honako zerga hauen kudeaketa-prozedurak eta lagin bat aztertu ditugu:

(euroak, milakotan)

	Aitortutako es- kubide garbiak, 2016	Diru-bilketa garbia, 2016	Diru-bilketa / aitortutako es- kubide garbiak (%)	Aldea (%) 2016/2015
Energia elektrikoaren ekoizpena	22.119	21.223	96	58
Energia-ekoizpenaren gaineko zerga berezia	20.864	20.883	100	-8

Egindako azterketan egiaztatu dugu ezen, orokorrean, haiei buruzko arau erregulatzaileren arabera likidatu eta bildu zirela. Bi zerga horien prozeduraren azterketari dagokionez, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

a) Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga Estatuan 2013an sortutako zerga bat da, eta harekin zama bat ezartzen zaie energia elektrikoa ekoizteko eta energia hori sistema elektriko sartzeko jardueri.

Martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legeak ezarri zuen 100 kW-tik beherako potentzia nominala duen energia elektrikoaren ekoizpenerako instalazioen titularrek kenkari batzuk aplikatu ahalko dituztela, ordaindutako zergaren zenbatekoaren baliokideak, 2015ean eta 2016an aurkeztutako honako zerga hauetan: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZa) eta sozietateen gaineko zerga.

Bi zerga horietan kendutako kopuruak honako hauek izan ziren: 2,92 milioi euro 2016an eta 1,99 milioi euro 2017an. Nabarmenezkoa da ezen 2016an ez dela kenkarirako mugarik jarri, eta aukera eman dela aurreko urteetan Nafarroan ordaindutako zenbatekoak jasotzeko; halere, 2017an 500 euroko muga duen kenkari bat ezarri zen.

b) Egiaztatu dugu energiaren ekoizpenaren gaineko zerga bereziaren aurrekontuan kontabilizatu-tako diru-bilketa garbia 527.313 euro txikiagoa dela diru-bilketari buruzko 2016ko txostenean tributu horretarako ezarritakoa baino (ekitaldi horretan aplikatzeko). Kontabilitate printzipioak beren zabaltasun osoan zergen kontabilizatzeari ez aplikatzearen eta CAT-GTren eta SAPGE21en arteko loturan dauden gabezien ondorioa da egitate hori.

Zerga iruzurraren kontrako borroka

Nafarroako Zerga Ogasunak emandako datuen arabera, 2008tik 2016ra zerga-iruzurraren aurkako borroka diru-sarrera hauek sortu ditu:

(euroak, milakotan)

Ekitaldia	Zergen kudeaketa	Ikuskapena	Beste tributu-jarduketa batzuk*	Gutzizko zenbatekoa	Aurkibidea
2008	83.930	47.636	0	131.566	100
2009	81.404	56.630	0	138.034	105
2010	67.518	54.852	0	122.370	93
2011	52.045	38.808	0	90.853	69
2012	58.648	69.499	0	128.147	97
2013	57.358	37.826	0	95.184	72
2014	56.137	28.681	0	84.818	64
2015	50.992	45.610	8.129	104.731	80
2016	58.774	46.142	19.363	124.279	94

*2015ean hasi zen zergadunarekin zuzeneko lotura ez duten baina Nafarroarentzat diru-bilketa dakarten jarduketa mota horien kontaketa.

Ikusten denez, zerga-iruzurraren aurkako borroka sortutako diru-sarrerak nabarmen aldatu dira, eta 2014an iritsi dira balio txikienera; halere, berriz ere hazten hasi dira data horretatik aurrera, eta 2016an 124,28 milioi eurokoak dira.

Hurrengo taulan, 2015eko eta 2016ko ekitaldietako iruzurraren aurkako jarduketak erakusten ditugu xehetasun gehiagorekin:

(euroak, milakotan)

Zerga iruzurraren kontrako borroka	2015		2016	
Ikuskapena	Jarduketan kop.	Zenbatekoa	Jarduketan kop.	Zenbatekoa
Ikuskapen aktak	692	26.767	573	19.869
Zehapen-espedienteak	407	8.293	367	10.571
Erantzukizun zibila, delituengatik	5	2.411	3	7.982
Ikuskatzailetzak induzitutako erregularizazioak	10	1.482	9	434
Kreditu fiskalak deuseztatzea	78	6.657	75	7.286
Ikuskapena, guztira	1.192	45.610	1.027	46.142
Zergen kudeaketa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa	Likidazioen kop.	Zenbatekoa
BEZa	2.559	15.244	3.520	12.936
PFEZa	3.258	5.852	4.090	4.960
Sozietateak	274	3.385	279	2.185
Gainerako zergak	1.239	2.800	5.674	5.891
Zehapenak	18.953	4.766	21.641	5.683
Epez kanpoko aitortzen errekarguak	5.525	1.984	4.952	2.459
Errekerimenduak	3.531	4.116	4.584	5.409
Kudeaketaren diru-sarrera induzituak	15.193	12.844	13.677	19.251
Tributu-kudeaketa, guztira	50.532	50.991	58.417	58.774

2016an, ikuskatzearen arloan, jarduketa gutxiago egin dira (165) 2015ean baino; halere, sortutako diru-sarrerak 0,53 milioi euro handiagoak izan dira. Tributuen kudeaketari dagokionez, 7.885 likidazio gehiago egin dira 2015ean baino, eta aurreko urtekoak baino 7,78 milioi euro handiagoak diren diru-sarrerak eragin dituzte 2016an.

Nafarroako Gobernuak, 2016ko urriaren 26ko bilkuran, Iruzur Fiskalaren aurka Borrokatzeko Planaren behin betiko testua onetsi zuen, zirriborroan Iruzurraren eta Ezkutuko Ekonomiaren kontra Borrokatzeko Batzordeko kideen eta herritarren ekarpenak jaso ondoren.

Planak aurreikusia dauka aurreikusitako neurriak areagotzea, 2019ra bitarte 590 milioi euro biltzeko, eta 220 jarduketa-neurri zehazten ditu; zenbatespen horrek berekin dakar espero den inpaktu ekonomikoa ehuneko bost handiagoa izatea aurreko planekoa baino.

Helburu horiek lortzeko, inbertsio handi bat egin beharra dago baliabide materialetan eta giza baliabideetan; hori dela eta, 2017ko aurrekontuan 1,5 milioi euro handitu da baliabide horietarako

zuzkidura, eta lan publikoaren eskaintza bat onetsi zen, ogasuneko kudeatzaileen 12 lanpostu eta teknikarien hamar lanpostu biltzen zituena.

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerak batzuk

Tasak, prezio publikoak eta aitortutako bestelako diru-sarrera garbiak 118,72 milioi eurokoak izan dira 2016. urtean, eta diru-bilketaren portzentajea ehuneko 74 izan zen. Ekitaldiko eskubide guztien ehuneko hiru egiten dute. Kontzeptu hauei dagozkie:

(euroak, milakotan)

Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	Aitortutako eskubide garbiak, 2016	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketaren ehunekoa	Aldea (%) Aitortutako eskubide garbiak 2016/2015
Tasak	12.304	12.077	98	8
Salneurri publikoak.	52.592	43.682	83	-2
Ondasunak saltzea	2.096	1.982	95	31
Eragiketen itzulketak	9.040	5.474	61	19
Bestelako diru-sarrerak	42.692	24.898	58	-16
Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak	118.7244	88.11388.113	74	-5

Tasen bidezko diru-sarrerak 12,30 milioi eurokoak izan ziren; horietatik, 8,69 milioi joko-jardueratik heldutako tasei dagozkie. 2016ko ekitaldiaren amaieran, ehuneko 98 zegoen bilduta.

2016an sortutako prezio publikoen bidez izandako diru-sarrerak 52,59 milioi eurokoak izan ziren; horien artean, nabarmentzekoak dira gizarte zerbitzuen prestazioaren bidezko diru-sarrerak, 38,71 milioiokoak, eta laguntza medikoa dela-eta beste entitate batzuekin egindako itunen bidezko diru-sarrerak, 9,39 milioi eurokoak. Prezio publikoen bidezko diru-sarrerak, 2016ko itxieran, diru-sarrera horientatik sortutako guztizkoaren ehuneko 83 izan ziren.

Honakoak dira "bestelako diru-sarrerak" izendapenaren pean sartzen diren kontzeptu nagusiak: isunak eta zehapenak, 20,26 milioi; gainkarguak, 9,72 milioi, eta berandutza-interesak, azkenik, 2,68 milioi.

Erabilitako prozedura eta osasun zerbitzuen prestaziotik heldutako prezio publikoen lagin bat aztertu ditugu; honako hau izan zen 2016ko betetzea:

	Aitortutako eskubide garbiak, 2016	Diru-bilketa garbia	Diru-bilketaren ehunekoa	Aitortutako eskubide garbiak, 2015	Aitortutako eskubide garbien aldaketa, 2016/2015 (%)
Zerbitzu-emateen bidezko diru-sarrerak	9.390.669	8.851.598	94	8.014.301	-6

2016an aitortutako eskubideak 9,39 milioi eurokoak izan ziren, 2015ean baino ehuneko sei gutxiago, eta ekitaldiaren itxieran 8,85 milioi kobratu ziren.

Kudeaketa-prozeduraren azterketan, egiaztatu dugu eskubidea aurrekontuan kobratzen den aldi berean aitortzen dela, edo kobrantzaren kudeaketa agentzia exekutibora bidaltzen denean, epean ez ordaintzeagatik. Horrek eragiten du eskubide batzuk egon ahal izatea ekitaldiko aurrekontuan kontabilizatu ez direnak, eta erregistratuta daudenetako batzuk kasuko urtekoak ez izatea. Hartara, eman diguten informazioaren arabera, 2016an 12.161 faktura egin ziren, 10,15 milioi eurokoak; horietatik, 2016ko abenduaren 31n, 7,74 milioi zeuden kobratuta.

Gainera, ez dago argitaratuta emandako zerbitzuengatik kobratzen diren tarifen gaurkotzea.

Fakturen lagin bat aztertuta, egiaztatu dugu haiei buruzko arau erregulatzailaren arabera likidatu eta bildu zirela.

Gure gomendioak:

- *Hornikuntza ba jartzea ekitaldiaren amaieran aitortu ez diren zergen itzulketak direla eta.*
- *Kontu Orokorren oroitidazkian azterketa exhaustiboago bat jasotzea onura fiskalak direla-eta ezarritako helburuetarako ekarpenari buruz.*
- *Aurrekontuan erregistratzea ekitaldian sortutako eskubideak, sortzen diren unean emandako laguntza medikoak eragindakoak, noiz kobratzen diren alde batera utzita.*
- *Argitaratzea laguntza medikoarengatik emandako zerbitzuei dagozkien tarifen gaurkotzea.*

IV.11. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Inbertsio errealak besterentzea

Inbertsio errealeen besterentzearengatik aitortutako eskubideak 1.217.768 eurokoak izan ziren; horietatik, ehuneko 79 eraikinen salmentari eta ehuneko 19 lurren salmentari dagozkie.

Nafarroako Foru Komunitatearen jabetzako zenbait higiezin enkante bidezko besterentzea aztertu dugu. Zehazki, 10 lote ziren, guztira 1,41 milioi euro egiten zutenak. Eskaintzak aurkeztu ziren salgai zeuden hamar loteetatik seirako, eta azkenean 1,13 milioi euroko zenbatekoan adjudikatu ziren.

Egiaztatu da besterentze-espeditzearen izapidetzean, oro har, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritako baldintzak bete direla, prezioa kobratu egin dela eta higiezinari baja eman zaiola ondasunen inbentarioan. Halere, honako hau aipatu behar dugu:

- Adjudikatutako sei loteetatik hiruk inbentarioan zuten balioa zero zen (horietako bati 1979an eman zitzaion alta, eta daturik ez dago; bestea Estatuaren transferentzia baten bidez jaso zen; azkenekoari buruz, daturik ez zegoen), nahiz eta kontabilitatean alta emanda egon behar zuten merkatuan zeukaten balioarekin. Horrek eragin zuen enkantearen guztizko zenbatekoak zuzenean eragina izatea emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontuan.

Ekitaldiaren itxieraren ondorengo egitate aipagarri gisa, nabarmendu beharra daukagu 2017an ez-betetze batzuk gertatu zirela, ez-ordaintzearekin eta 376.000 euroko zenbatekoan besterentzako loteetako batean notarioa izendatzearekin lotutakoak. Azkenean, adjudikazioa ebatzi egin zen eta fidantza inkautatu.

Gomendatzen dugu ibilgetuaren altak eta bajak kontabilizatzeko irizpide batzuk ezartzea, kontabilitatearen arloko araudi indardunaren arabera, eta haiek irizpide horien arabera erregistratzea.

Transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak

Transferentzia arrunten eta kapital-transferentzien bidezko diru-sarrerak 47,66 eta 21,93 milioi ingurukoak izan ziren, hurrenez hurren, ondoren azaltzen dugun bezala:

	(euroak, milakotan)			
	Aitortutako eskubide garbiak		2016/2015	Diru-bilketa
	2015	2016	aldea (%)	garbia, 2016
Estatuko Administrazio Orokorraren transferentzia arruntak	29.649	32.792	11	32.478
Fundazioen transferentzia arruntak	57	1.147	1.903	1.147
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen transferentzia arruntak	95	2.472	2.512	2.472
Toki entitateen transferentzia arruntak	371	365	-2	365
Enpresa pribatuen transferentzia arruntak	0	4.532	-	69
Familien eta irabazi asmorik gabeko erakundeen transferentzia arruntak	50	10	-80	10
Kanpotik datozen transferentzia arruntak	6.710	6.346	-5	6.346
Transferentzia arruntak guztira	36.931	47.664	29	42.887
Estatuko Administrazio Orokorraren kapital-transferentziak	370	387	5	389
Fundazioen kapital-transferentziak	23	0	-	0
Enpresa publikoen eta beste ente publiko batzuen kapital-transferentziak	30.582	14.555	-52	0
Toki entitateen kapital-transferentziak	183	24	-87	24
Kanpotik datozen kapital-transferentziak	10.526	6.958	-34	6.958
Kapital-transferentziak guztira	41.684	21.925	-47	7.371

Transferentzia arruntek ehuneko 29 egin zuten gora eta kapital-transferentziek, berriz, ehuneko 47 behera, 2015arekin alderatuta.

Enpresa pribatuen transferentziei dagozkien diru-sarreraren exekuzioa berrikusi dugu; honako kontzeptu hauek osatuta dago:

	Aitortutako eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia
Estatuko laguntzaren itzulketa-Astra kasua	4.463.831	0
O-NOZeko langile ikerlariei eginiko diru-sarrerak	68.577	68.577
Enpresa pribatuen transferentziak, guztira	4.532.409	68.577

Kontzeptu horren guztizkoaren ehuneko 98,5 (4,46 milioi euro) lotuta dago Europar Batzordearen erabaki bat betetzearekin; hain zuzen ere, plataforma digitala duen operadore batek egindako salaketa batekin lotuta dago, neutraltasun teknologikoaren printzipioaren aurkako arau-hauste batengatik, zeren eta lurreko transmisioa telebista digitalizatzeko bide bakarra balitz bezala jasotzen baitu.

Erabaki horren ondorioz, derrigor berreskuratu behar ziren operadoreei emandako laguntzak, lurreko telebista digitalaren (LTD) estalduraren hedapena eta haren azpiegiturak finantzatu zituztenak, bai eta bidean ziren estatu-laguntza deitutakoak, LTD sareen mantentzerako eta ustiatzerako emanak. Hori dela eta, 2016ko apirilean, laguntzari zegokion 4,46 milioiko zenbatekoa (laguntzaren 3,88 milioi eta interesen 0,58 milioi) berreskuratzeko prozedura administratiboa hasi zen.

Ekitaldiaren itxieraren ondorengo egitate aipagarri gisa, nabarmendu behar dugu kasuko enpresak itzulketa hori ez egiteko aurkeztutako alegazioak ezetsi egin zirela; zenbateko hori oraindik ere ez da kobratu, eta agentzia exekutiboari ere ez zaio pasa, eta aipatzeko moduko zalantza dago zenbateko horren kobragarritasunari buruz. Gaur egun, Europar Batasuneko Auzitegi Nagusian eta Nafarroako Auzitegi Nagusian aurkeztutako errekurtsoen ebazpena eman gabe dago, eta Merkatuaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak ere ez du horri buruzko erabakirik hartu.

Gastuaren beste osagaiari dagokionez, O-NOZeko langile ikertzaileek jasotako konpentsazio ekonomikoak dira, 125/2009 Foru Aginduaren arabera Miguel Servet Fundazioaren bitartez kudeatuak. Bada, egiaztatu dugu aipatutako araudiaren arabekoak direla eta egoki ordaindu direla langile horien nominetan; halere, 2015ean sortutako 23.679 euro 2016ko aurrekontuan erregistratu dira.

Gomendatzen dugu aurrekontuan kontabilizatzea ekitaldi bakoitzean sortutako diru-sarrerak.

IV.12. ZORDUNAK

2016ko abenduaren 31n, hartzekodunen saldoa 337,53 milioi eurokoa zen, eta honako hauei zegokien:

(euroak, milakotan)

Zordunak	2015-12-31	2016-12-31	2016/2015 aldea (%)
Aurrekontuko zordunak	837.496	818.679	-2
Aurrekontukoak ez diren zordunak	5.983	144	-98
Beste ente publiko batzuen baliabideetako zordunak	311	396	27
Bestelako zordunak	4.001	3.787	-5
Kaudimen gabeziatarako probisioa	(498.169)	(485.473)	-3
Zordunak, guztira	349.622	337.533	-3

Nabarmenezkoa da aurrekontukoak ez diren zordunak ehuneko 98 jaitsi direla, zeren eta ez baita inbertsiorik egin Abiadura Handiko Trenean.

Aurrekontuko zordunak, funtsean, kudeaketa arrunteko egoeran dauden tributu-zordunak dira (kudeaketa arrunta, premiamendu-bidea, tributu-zorren geroratzea).

2016ko abenduaren 31n, saldoa 818,68 milioi eurokoa zen, eta haren ehuneko 58,9 kaudi-mengabezien bidez hornitzen zen (482,07 milioi euro). Hauxe da banaketa:

(euroak, milakotan)

Aurrekontuko zordunak	2015-12-31	2016-12-31	Aldea (%) 2016/2015
Departamentuetako zordunak	41.469	55.692	34
Zordunak: ohiko kudeaketa	135.930	125.454	-8
Zorra dela-eta luzapena eman zaien zordunak	163.760	146.403	-11
Premiamendu bideko zordunak	496.780	487.826	-2
Egoera berezietako zordunak	24.018	24.041	0
Zordunak	861.956	839.416	-3
Sortu ez diren korrituak eta gainkarguak	(23.257)	(17.180)	-26
Kobrantsak eta aplikatzeko dauden sortak	(1.203)	(3.557)	196
Aurrekontuko zordunak, guztira	837.496	818.679	-2

Aurrekontuko zordunen saldo orokorrak ehuneko bi egin du behera (18,82 milioi); nabarmenezkoa da zordunak jaitsi egin direla, bai kudeaketa arruntekoak, bai luzapeneakoak, bai premiamendu-bidekoak; jaitsiera hori 36,79 milioikoa izan da.

Tributuen aurrekontu-likidazioaren, diru-bilketaren eta itzulketaren eta zuzenbide publikoko zenbait diru-sarreraren kudeaketa –esate baterako, interesak eta errekaruak– CAT-GT aplikazio informatikoaren bitartez egiten da; hartatik, informazioa SAPGE21 aplikaziora aldatzen da.

Ganbera honek aurreko txostenetan azpimarratu duen bezala, aurrekontu-likidazioak eta egoerari buruzko balantzeak ez dute zuzen jasotzen CAT-GTren informazio guztia. Hartara, ez da bereizten ekitaldi arruntetako zordunen eta itxitako ekitaldietako zordunen artean, eta ez dira deuseztatzen, ezta ere, aitortutako eskubideak, zorren geroratzea ematen zaien zordunei dagozkienak, kontabilitate-plan orokor indardunean ezarritako irizpidez bestera.

Zordunak ez dira balantzean jasotzen, kontabilitate publikoko plan orokorrean ezarritako sailkapenaren arabera, ez eta likidatu gabeko interes eta gainkarguak eta aplikatzeko dauden kobrantzak ere; izan ere, horiek zordunen saldotik kentzen dira, eta balantzearen pasiboan erregistratu beharko lirakeke, aurreratutako diru-sarrerara eta zordun gisa, hurrenez hurren.

Balantzearen pasiboan, eta zergen itzulketa dela-eta dauden aurrekontu-hartzekodunen eta beste hartzekodunen barruan, tributu-zordunen saldo hartzekodunak erregistratzen dira CAT-GTren informazioaren doikuntza baten bitartez. 2016an, doikuntza orokorra 308,54 milioi eurokoa izan zen.

Kontu Orokorren egoerari buruzko balantzea lortzen da kontabilitateko aplikazio informatikoko egoerari buruzko balantzean oinarrituta, kontabilitatez besteko doikuntza bat eginez CAT-GTko zordunei eta hartzekodunei buruzko zerga-informazioarekin.

Aurreikusita dago 2018an CAT-GTren eta SAPGE21ren arteko lotura berria aplikatzea, bi aplikazioen arteko informazio-trukea hobetzeko.

“Beste zordun batzuk” xehatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da CAT-GTren formalizatzeko dauden eragiketen kontua (CAT-GTren eta kontabilitatearen arteko lotura-kontua), zeinak 3,25 milioi euroko saldoa baitu. Ganbera honek aurreko txostenetan ohartarazi duen bezala, zenbait horrek ez du behar bezalako euskarririk, eta ez dakigu zergatik gutxitu den 0,12 milioi aurreko urtekoarekiko. Kontu horren saldoa guztiz hornituta dago.

Gomendatzen dugu zerga-zordunen saldo justifikatu gabeak aztertzea eta, kasua bada, haiek erregularizatzea.

IV.13. DIRUZAINZTA

2016ko abenduaren 31ko diruzaintza 140,96 milioi eurokoa zen, eta honako kontu mota hauetan zegoen:

(euroak, milakotan)			
Kontzeptua	Saldoa 2015-12-31n	Saldoa 2016-12-31n	2016/2015 aldea (%)
Kontu korrante operatiboak	123	1.010	721
Inbertsio-kontu finantzarioak (funtsak)	51.576	130.076	152
Diru-sarreraren kontu bereziak	10.272	9.877	-4
Guztira	61.971	140.963	127

Diruzaintzako saldoek ehuneko 127 egin zuten gora; kopuru hori 79 euro gehiago da, inbertsioko kontu finantzarioek ehuneko 152 egin dutelako gora.

Aurreko funtsek 15.823 euroko interesak sortu dituzte; 2015ean sortutakoak, berriz, 0,14 milioioak izan ziren, eta 2014an sortutakoak, azkenik, 1,3 milioioak.

2016an guztira 550 milioi kontzentratu ziren epe laburreko diruzaintza-beharrei aurre egiteko kredituetan; erabilitako gehieneko zenbatekoa 512 milioioa izan zen, uztailean. Eragiketa horien kostu finantzarioa 81.782 eurokoa izan zen; zenbateko hori nabarmenki txikia da, Euriborrek erdietsi zituen balio-eragatik, zeinak negatiboak izan baitziren.

Banku-zirkularizazioaren bidez lortutako informazioan, kontu bat aurkitu dugu 56.597 euroko saldoa duena (ez du mugimendurik izan 2015eko maiatzetik) eta Nafarroako Gobernuaren diruzaintzako datu-basean ageri ez dena. Diru-bilketako kontu murriztu bat da, zeinean zergak ordaintzen baitziren; gero, kopuru horiek kontu arrunt batera aldatzen ziren. Kontu hori 2015ean beste entitate batekin fusionatu zen banku bati zegokion, eta traspasoa ez egitearen arrazoia izan daiteke entitateen biltze-prozesuan akatsen bat gertatu izana. Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak bidezko izapideak hasi ditu jada egoera horri konponbidea emateko.

Gomendatzen dugu egiaztatzea finantza-entitateetan dauden kontuak diruzaintzako datu-basean jasota daudela.

IV.14. ZORPETZEA ETA BESTE FINANTZA-ERAGIKETA BATZUK

Zorpetzea

Foru Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zorpetzea 3.057,56 milioi eurokoa zen 2016ko abenduaren 31n, kostua amortizatuta, eta honako modalitateei zegokien:

(euroak, milakotan)			
Nafarroako Gobernuaren zorra	2015-12-31	2016-12-31	2016/2015 aldea (%)
Nafarroako Zor Publikoa	1.471.492	1.440.848	-2
Epe luzeko maileguak finantza-entitateekin	1.055.200	1.248.000	18
Epe luzeko maileguak sektore publikorako	22.339	21.444	-4
<i>Epe luzeko zorpetzea (A)</i>	<i>2.549.031</i>	<i>2.710.292</i>	<i>6</i>
Nafarroako epe laburreko zor publikoa	289.067	292.928	1
Zor publikoaren epe laburreko interesak	48.661	39.808	-18
Maileguen epe laburreko interesak	12.102	14.531	20
<i>Epe laburreko zorpetzea (B)</i>	<i>349.830</i>	<i>347.267</i>	<i>-1</i>
Zorpetzea, guztira (A+B)	2.898.861	3.057.559	5

Kontu Orokorrei buruzko 2015eko txostenean jada adierazi genuen bezala, argitu beharra dago datu horietan alde batzuk badaudela Nafarroako Gobernuaren balantzean jasotakoarekin konparatuta; honako hauek dira alde horien arrazoiak:

- 2015eko eta 2016ko egoera-balantzeetan, epe luzeko hartzekodunen artean jasotako fidantzak sartzen dira, 0,45 milioi eurokoak.

- 2015eko eta 2016ko balantzeak "Club Atlético Osasunaren ondasunen epe luzeko ibilgetuaren hornitzailea" izeneko bat jasotzen du, 10,87 milioiokoa. Kontu hori dator aipatutako klubaren Foru Ogasunarekiko Tributu-zorra Berregituratzeari buruzko 26/2014 Foru Legearen aplikaziotik, eta Klubak hirugarrenen alde hartuta dituen eta higiezin horiekin bermatuta dauden betebeharren balioari dagokie. Kontu hori sortu da aurre egin ahal izateko, kasua bada, aipatutako klubaren ez-ordaintzei, eta haren zenbatekoa doitzen joanen da hark hipoteka-zama horiek ordaintzen di-tuen neurrian. 2016an ez zen doikuntzarik egin kontu horretan.

Gure ustez, bi kontu horiek, zorrozki, ez dira zorpetzea, txosten honen ondorioetarako.

Hona hemen azpimarratuko ditugunak, azterketa egin eta gero:

- Guztizko zorpetzeak ehuneko bost egin du gora (158,70 milioi euro). 2016an, zor publikoak ehuneko 57 egiten du guztizkoan; 2015ean, berriz, ehuneko 62 zen, eta garrantzi erlatibo handiago ematen zien maileguei.

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legean, zorpetze-eragiketak formalizatzeko aukera ezarri zen, honako muga honekin: 2016ko abenduaren 31ko saldo biziak ez gainditzea 79,48 milioi euro baino gehiagoan 2016ko urtarrilaren 1eko saldo bizia (geroztik, kopuru hori aldatu eta 82,88 milioiokoa izatera pasa zen). Halere, 17.2 artikulua ezarri zuen kopuru hori gaindi zitekeela Nafarroako Gobernuak eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak hitzar litzaketen bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzar-men Ekonomikoan xedatutakoaren baitan eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauak ezar-tzen dituzten mugak gainditu gabe.

Nafarroako Gobernuak egindako zorpetze-eragiketak, kopuru hori gainditzea inplikatu zute-nak, Estatuko Ministroen Kontseiluak baimendu zituen; horrenbestez, aplikatzekoa den araua bete egin zen.

- 2016an itundutako zorpetzearen eta guztizko zorpetzearen motaren arabera batez besteko interesa ondoren erakusten duguna da:

(euroak, milakotan)

Zorpetze modalitatea	2016an itundutako zorpetzea	2016ko batez besteko interes-tasa	Guztira Zorpetzea 2016-12-31n	Batez besteko interes tasa
Nafarroako Zor Publikoa	260.620	1,95	1.733.778	3,78
Finantza entitateen maileguak	319.000	1,31	948.000	1,90
Europako Inbertsio Bankuarekiko maileguak	-	-	300.000	1,42
Gizarte Segurantzaren mailegua	-	-	9.670	0
Beste sektore publiko batekiko maileguak	-	-	11.774	0,08
Zorra guztira	579.620	1,60	3.003.222	2,92

Ikusten den bezala, maileguen bidezko zorraren batez besteko interes-tasa nabarmen txikiagoa da zor publikoarena baino.

2016an, zorraren batez besteko interes-tasa orokorrak behera egin du 2015ekoarekin alderatuta: ehuneko 3,62tik ehuneko 2,92ra.

- Nafarroako Gobernuaren zorraren guztizkotik heldu den finantza-zamaren bilakaera (aurrekontuaren 3. eta 9. kapitulua) hurrengo taulan erakusten da, diru-sarrera arrunten gainean egiten duen ehunekoaren ondoan.

	2012	2013	2014	2015	2016
Finantza-zama (milioiak)	200,30	300,54	401,48	415,74	519,98
Aurkibidea	100	150	200	208	260
Diru-sarrera arrunten gaineko ehunekoa	6	9	12	13	15

Hau da, finantza-zamak ehuneko 260 egin du gora aztertutako aldian, eta 2016an gorakada bat izan du, 2014an eta 2015ean nolabaiteko egonkortze bat lortu ondoren. Gainera, diru-sarrera arruntetan duen pisu erlatiboa goranzkoa da, eta 2016an haien ehuneko 15 izatera iritsi da.

- Hurrengo taulan erakusten dira Gobernuaren zorraren guztizkoa datozen ekitaldietan amortizatzeko dauden aurreikuspenak:

(euroak, milakotan)

Ekitaldia	Amortizatu beharreko zenbatekoa, guztira	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2017	292.928	9,75	9,75
2018	240.359	8,00	17,76
2019	255.805	8,52	26,27
2020	218.743	7,28	33,56
2021	201.967	6,73	40,28
2022	121.188	4,04	44,32
2023	270.042	8,99	53,31
2024	484.718	16,14	69,45
2025	100.679	3,35	72,80
2026	170.000	5,66	78,46
2027	300.000	9,99	88,45
2028	260.620	8,68	97,13
2030	85.000	2,83	99,96
<i>Honaino, guztira</i>	<i>3.002.048</i>		
Sailkaezina	1.172	0,04	100
Guztira	3.003.220		

Ikusten den bezala, 2022a baino lehen amortizatu beharrekoa da zor horren ehuneko 44. Halaber, 2024ko ekitaldia nabarmendu behar da, zorraren ehuneko 16ko amortizazioarekin.

"Sailkaezina" gobernu zentralak lanbide heziketako ziklo berrietarako eta DBHko ibilbideetarako emandako aurrerakinei dagokie, eta haietan ez da amortizazio-epetik aipatzen.

• 2016ko maiatzean, Standard&Poor's rating agentziak "A, perspektiba egonkorrarekin" kalifikazioa eman zion Nafarroaren epe luzeko zorrari. Kaudimenari buruzko emaitza hori bi maila gorago dago Espainiako Erresumarena (BBB+) baino. 2017ko apirilean, aipatutako agentziak Nafarroako zorrari "A, perspektiba positiboarekin" emaitza emana zion; horrenbestez, Foru Komunitateak bere posizioa hobetu du.

Emandako abal eta konpromiso-gutunak

• Nafarroako Ogasunari buruzko Foru Legearen 74. artikulua Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko 1/2016 Foru Legeak aldatu zuen; zehazki, honako paragrafo hau gehitu zuen:

"...Titulu honen I eta II. kapituluaren ondorioetarako, abaltzat hartuko dira abal eta berrabal eragiketak edo beste edozein berme, barnean direla konpromiso gutunak, berekin dakartenak Nafarroako Foru Komunitateak arriskuak bere gain hartzea..."

Aurrekoa kontuan hartuta, Foru Komunitateak emandako abalen saldoa 163,52 milioi eurokoa zen abenduaren 31n, eta honako hauei zegokien:

Emandako abalak	(euroak, milakotan)		
	Saldoa 2015-12-31n	Saldoa 2016-12-31n	2016/2015 aldea (%)
I+G	209	164	-22
Zailtasunak dituzten enpresak eta inbertsiorako laguntzak	6.804	4.958	-27
"Nafarroa Abala" programa	3.679	2.940	-20
C.A. Osasuna	11.212	11.212	-
NDO Los Arcosko zirkuitua	22.885	20.192	-12
NUP-Iberus programa	786	0	-100
Sodena-Europako Inbertsio Bankua	102.953	102.957	-
CRANA	500	0	-100
Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiriaren confort lettersak	30.600	21.100	-31
Guztira	179.628	163.523	-9

Guztizko saldo biziak ehuneko bederatzi egin du behera (16,1 milioi euro), eta honako hauek dira nabarmentzekoak: CATen confort lettersen jaitsiera (9,5 milioi euro), Los Arcosko Zirkuituarekin zerikusi dutenen jaitsiera (2,7 milioi), zailtasunetan dauden enpresen jaitsiera (1,8 milioi) edo CRANAREN eta NUPen eragiketen deuseztatzea.

2016an zehar, ez da eragiketa berririk abalatu, eta ez da konpromiso-gutun gehigarririk formalizatu.

2016an, Nafarroako Gobernuak, fidantzapeko betebeharren ez-betetzeen ondorioz, 0,63 milioi euroko gastua aitortu du; zenbateko hori sortu da abalaturako bi enpresaren hiru eragiketa ez betetzeagatik.

Sodenarentzako abala eratu zen sozietate horrek Europako Inbertsio Bankutik jasotako mailegu bat bermatzeko, enpresa txiki eta ertainek Moderna Planaren esparruan egiten dituzten inbertsio-proiektuak finantzatzera bideratua. Printzipalaren gaineko abal bat da (100 milioi euro), bai eta abala exekutatzeko unean Sodenak Europako Inbertsio Bankuari edozein finantzaketa-kontraturen kontzeptuan (interesak, komisioak, zamak eta abar) zor diezaiokeen edozein zenbateren gainekoa ere. Gainerako abaletan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak erantzuten du soilik maileguaren printzipala dela eta.

Kontu Orokorren oroitidazkiak, 2016ko ekitaldi honetan, emandako abalen egoerari buruzko informazioa jaso du.

Ez dago jarrikerik abalaturako betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntzarik.

Aktibo finantzarioetan egindako gastuen lagin baten azterketa

Aztertu dugu Nafarroako Gobernuak NEKP sozietate publikoan egin zuen 9,5 milioi euroko kapital-gehikuntza, SODENAK eta CATek zeuzkaten zor finantzarioak birfinantzatzeko planaren aurrera eramateko 2014an hartutako erabakiaren ondoriozkoa; horrek, izan ere, 2015ean 11,4

milioi euroko aurrekontu-gastua eragin zuen, 2016an 9,5 milioi eurokoa eta 2017an 5,7 milioi eurokoa.

Gainera, abalaren exekuzioa fiskalizatu dugu, gastu handiagoa ekarri baitzion Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari; izan ere, 296.774 euro handitu zen (guztizkoaren ehuneko 47).

Eragiketa horiek aztertuta, ondoriozta dezakegu haien izapidetzea eta kontabilizatzea egokiak izan zirela.

Gure gomendioa da abalatutako betebeharren ez-betetzetik heldutako arrisku guztietarako hornikuntza jartzea.

IV.15. SOZIESTATE ETA FUNDAZIO PUBLIKOAK

Sozietate publikoak

Ondoren, Foru Komunitateko sozietate publikoei buruzko datuak ematen ditugu, Kontu Orokorren oroitidazkian bildutako informazioaren arabera:

(euroak, milakotan)

Sozietatea	Ekitaldiko emaitza	Diru-laguntzak Foru Administrazioa	Epe luzeko zorpetzea (2)	Ondare garbia	Enplegatu kopuruaren batez bestekoa
CEIN	-80,98	952,65	18,70	699,09	32
CNAI	-150,42	0	0	43,76	26
Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria	-1.260,24	0	71,40	31.865,49	3
GAN	-1.897,30	1.030,06	19,35	3.250,19	98
INTIA	-885,24	5.054,53	14,13	643,80	193
NASERTIC	422,16	0	0	7.628,50	91
Nasuvinsa	253,61	13.768,17	25.305,60	203.674,78	82
Natural Climate Systems SA	-19,24	0	558,90	60,92	0
NICDO	-4.403,63	54,35	18.041,15	62.908,06	32
NILSA	0	0	44,31	901,93	36
Potasas de Subiza SAU	590,87	0	0	1.948,34	0
Salinas de Navarra, SA	2.112,60	0	0	25.211,11	57
Sodena	-4.395,87	629,17	87.507,24	53.826,73	23
Start Up Capital Navarra SA	102,17	0	0	1.316,07	0
Tracasa	89,51	0	816,98	9.124,36	167
Tracasa Instrumental	383,99	0	0	31.405,79	265
NEKP	-11.803,46	0	0	453.048,13	10
Guztira (1)	-20.941,47	21.448,93	132.397,76	887.557,05	1.1151115

(1) Bateratu gabeko datuak.

(2) Zorpetzean, ez dira sartzen taldeko enpresekiko eta enpresa elkartuekiko zorrak.

NEKParen enpresa taldearen osaera, honakoa zen kontabilitate-bateratzearen ondorioetarako:

NEKParen Taldearen osaera	2015	2016
Menpekoak-Sozietate publikoak	16	17
Elkartuak eta talde anitzekoak	17	11
Parte hartutako beste batzuk	44	51

Ganbera honen aurreko txostenean adierazi izan dugun bezala, uste dugu Parque de la Naturaleza de Navarra SA enpresak Nafarroako Ondareari buruzko Foru Legean jasotako baldintzak betetzen dituela publikoa izateko, zeren eta NEKPren partaidetza, Sodenaren bitartezkoa, une hauetan kapitalaren ehuneko 45ekoa bada, taldearen gaineko kontrolik badago, gainerako bazkideekin izenpetutako hitzarmenen bitartez, eta, gainera, Sodena enpresa haren administratzaile bakarra da. Hau da, aurreko inguruabarrek adierazten dute nagusitasun-eragin bat badagoela eta, eta, gainera, NEKPren enpresa-taldeak enpresa hori menpean duela eta hartan zuzendaritza bakarra dagoela.

Iritzi hori honako egitateak abalatzten du: kontabilitate-araudiaren arabera, NEKPk sozietate hori bateratzen du integrazio orokorraren metodoaren bidez –gainerako sozietate publikoetan bezalaxe–; hau da, haren kontabilitateko egoera-orrietan sartzen ditu menpeko sozietate horren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu, kobrantza, ordainketa eta gainerako partidak, dagozkien doitzeta eta deuseztatzeekin.

Honako hauek dira Nafarroako enpresen sektore publikoaren 2016ko adierazle nagusiak eta aurreko ekitaldikoekiko alderaketa:

(euroak, milakotan)

NEKP taldearen adierazle bateratuak	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Ondare garbia	615.806	634.429	3
Epe luzerako zorrak	177.574	132.512	-25
Pasibo arrunta	157.584	182.975	16
Maniobra-funtsa	265.679	290.620	9
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	42.654	84.426	98
Negozio-zifraren zenbateko garbia	138.215	136.081	-2
Negozio-zifraren ehunekoa, Nafarroako Gobernuarekin batera egindakoa	25	27	8
Nafarroako Gobernuak jasotako kapitaleko diru-laguntzak (1)	373	12.523	3.257
Ustiapenerako Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	8.294	8.076	-3
Langile-gastuak	52.328	49.636	-5
Ustiapeneko emaitza	-41.451	3.231	108
Ekitaldiko emaitza bateratua	-43.869	-4.520	90
Sozietate nagusiarri esleitutako emaitza	-44.175	-5.069	89
Hirugarrenen emandako abalak eta bermeak (2)	113.532	97.783	-14
Goi zuzendarien batez besteko kopurua (2)	15	15	0
Gainerako langileen batez besteko kopurua (2)	1.089	1.096	1

(1) Zerga-eraginaren aurretiko zenbatekoa.

(2) Soilik menpeko enpresei dagokienez, bateratzean integrazio orokorraren bidetik sarturik.

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2016ko epe luzeko zorrak ehuneko 25 gutxitu dira 2015ekoekin alderatuta, eta 132,51 milioi eurokoak izatera iristen dira.
- Eskudiruak eta bestelako aktibo likidoak ehuneko 98 egin dute gora 2016an aurreko ekitaldian zeudenekin alderatuta.
- Ustiatzearen emaitza, ekitaldiaren emaitza bateratua eta sozietate nagusiarri esleitutakoa nabarmen hobetu dira 2016an, 2015eko adierazleekin alderatuta.

Bestetik, sozietate publikoek urteko kontuen auditoria aurkezten dute. Auditoria horiek aztertuta, ondoko hauek nabarmentzen ditugu:

- 17 sozietateetatik, 15ek aldaketarik gabeko iritzia dute, eta horietako bitan azpimarralerrakada bat gehitu da iritzian, honako hauei buruz:

a) Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Zentroa: arreta deitzen da azken ekitaldietako emaitza negatiboari buruz; haien ondorioz, ondare garbia txikiagoa da kapital soziala baino. Administrazioaileak neurriak hartzen ari dira emaitzak orekatzeko, eta uste dute edonola ere bazkide bakarraren laguntza finantzarioa izaten jarraituko dutela.

b) Natural Climate Systems SA: aipatzen da sozietatea ekitaldiaren itxieran merkataritzaren arloko legediak jasotzen duen desegite-kasuetako batean dagoela; administrazioaileak neurriak hartzen ari dira emaitzak orekatzeko, eta uste dute edonola ere bazkide bakarraren laguntza finantzarioa izaten jarraituko dutela.

- Gainerako bi sozietateek aldatutako iritzia dute, salbuespenekin, ondoren azaltzen den bezala:

a) Potasas de Subiza: "...2016ko ekitaldian, Sozietateak teknikari espezializatu bati ingurumen-leheneratzerako plan baterako azterlan bat enkargatu dio. Plan horren arabera, sozietateak egin beharreko jarduketaren kostua 2.940 mila eurokoa da (3.065 mila euro 2015ean). Sozietateak aurreko ekitaldian kontzeptu horri dagokion pasiboa erregistratu beharko zuen, eta ekitaldi honetan, berriz, azterlanaren eguneratzearen ondorioak, bai eta Salinas de Navarra SA filialak egin beharreko zatiari dagozkionak ere. Epe luzeko hornidurak 2.940 mila eurotan azpibalaratuta daude. Aurreko ekitaldietako emaitza...

tzak 3.065 mila euro jaitsi beharko lirateke, eta 2016ko ekitaldiaren emaitza 125 mila eurotan azpibaloratuta dago...”.

b) Start Up Capital Navarra: “...”Tresna finantzarioen besterentzea dela-eta izandako narriatzea eta emaitza” epigrafean, 2016ko abenduaren 31n 117 mila euroko gainbalio bat aitortu da partaidetza osoa zeukan baten besterentzearengatik, 2015eko abenduaren 31n narriatuta baitzegoen. Aurreko ekitaldian salmentaren balio berreskuragarriari buruzko ebidentzia batzuk bazeudenez, sozietateak 2015ean zuzkiduraren zati bat itzuli beharko zuen, eta horrek eragin zuen 2015ean iritzian salbuespenak egotea. Horrenbestez, 2016ko abenduaren 31n, aurreko ekitaldietako emaitzen epigrafeak behar baino 117 mila euro gutxiagoko balioa du, eta ekitaldiaren emaitza zenbateko berean gainbaloratuta dago...”.

- Nasuvinsa sozietatearen oroitidazkian balizko kontingentzia bat ageri da jasota, hain zuzen ere 49 milioi euroan (gehi interesak gehi kostuak, kasua bada) baloratuta dagoen auzi baten ondorioz gerta daitekeena, eta esaten da ezen, nolana ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartuko dituela balizko ondorio ekonomikoak. Horri buruz, aipatu behar dugu Nafarroako Gobernuak ez zuela zuzkidurarik jarri balizko kontingentzia horretarako, nahiz eta zenbatekoa aipatzeko modukoa izan.

Ekitaldiko itxieraren ondorengo egitate aipagarri gisa, nabarmendu behar dugu 2017an Nasuvinsaren interesen aurkako behin betiko epaia eman zela; horrek eragin zuen 5/2017 Foru Legea onestea, zeinaren bidez urte horretako maiatzean kreditu berezi bat eman baitzitzaion, 25 milioi hasierako zuzkidurarekin, kreditu zabalgarri gisa (2017ko uztailean beste 26,5 milioi euroan zabaldu zen). Txosten hau idazteko garaian, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-gastua, epai horri dagokionez, 51,3 milioi eurokoa da, eta epai horrekin lotutako espediente guztiak oraindik ere ebatzi gabe daude.

- Azpimarratu behar dugu, gainera, 2017ko urrian, enpresa publikoek legedia betetzeari buruzko auditoria amaitu dela, 2016ko ekitaldiari dagokionez. Auditoria hori kanpoko enpresa pribatu batek egin du. Gaur egun, Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartze Zerbitzua auditoria horren emaitzak aztertzen ari da.

Fundazio publikoak

Hurrengo taulan fundazio publikoen datu metatu batzuk erakusten ditugu, Kontu Orokorren oroitidazkiko informazioaren arabera. Informazio horri gero Baluarte Fundazioari dagokiona gehitu zaio, dokumentu hori egin ondoren jaso baita:

Adierazlea	(euroak, milakotan)		
	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Ondare garbia	1.820	1.227	-33
Epe luzeko zorra	0	996	-
Jardueraren beraren ondoriozko diru-sarrerak	6.905	9.649	40
Nafarroako Gobernutik jasotako diru-laguntzak	2.609	4.466	71
Langile-gastuak	2.823	3.972	41
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	2.804	3.692	32
Maniobra-funtsa	933	1.016	9
Ekitaldiko soberakina	-925	-398	-57
Goi karguen kopurua (A)	2	3	50
Gainerako enplegatuen batez besteko kopurua (B)	76	81	7
Langileen kopuru osoa (A+ B)	78	84	8

Lau fundazio publikoek urteko kontuen auditoria aurkeztu dute, eta guztiek aldaketarik gabeko iritzia ageri dute.

Fundazio publikoen kontuen edukia aztertuta, egiaztatu dugu ez direla zehazten lotutako entitateekiko saldo eta transakzio guztiak.

Enpresa publikoekin gertatzen den bezala, 2017an fundazio horietan legedia betetzeari buruzko auditoria amaitu da, enpresa pribatuei kontratazioak eginez, eta Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartze Zerbitzua haiek aztertzen ari da.

Ekitaldiaren itxieraren ondorengo egitate aipagarri gisa, 2017ko martxoan, Ganbera honek egindako gomendio bat batez, gobernu-erabaki bat sinatu zen; haren bidez, Miguel Induráin Fundazioa fundazio publikotzat jo da.

Gure gomendioak:

- *Beren eragiketekin jarraitzeko ahalmenari buruzko zalantza nabarmena antzematen diren enpresei dagokienez, haien bideragarritasuna aztertzea bai ikuspuntu ekonomikotik, bai ikuspuntu sozialetik, eta akziodun guztien babes finantzarioa eskatzea.*
- *Aztertzea ea Parque de la Naturaleza de Navarra SA sozietateak behar diren baldintzak betetzen dituen enpresa publikotzat hartua izateko, Ondareari buruzko Foru Legearen eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legearen eraginetarako.*
- *Fundazio publikoen kontuetan sartzea erakunde horiek beren entitate lotuekin dauzkaten saldo eta transakzio guztiak.*

IV.16. INGURUNE TEKNOLOGIKOA

Informazio- eta teknologia-sistemek funtsezko eginkizun bat dute edozein erakunderen kudeaketan, baita Nafarroako Foru Administrazioarenean ere. Daukaten garrantzia dela eta, Ganbera honek urtero egiten duen Kontu Orokorrei buruzko txostenean lehenengo aldiz ondorio batzuk jaso ditugu "ingurune teknologikoari" edo informazio ekonomiko-finantzarioko sistemei buruz eta Nafarroako Gobernuak, Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, informazioaren teknologien gainean egindako kontrolei buruz.

Azterketa hori egiteko, eta kontuan hartuta lan honetan sartzen den lehenengo urtea dela, galdetegi orokor bat bidali dugu, zeinak aukera eman baitigu ingurune teknologikoa orokorrean ebaluatzeko; datoren urteetan, Ganberaren fiskalizazioak exhaustiboagoak eta xeheagoak izanen dira.

Ganbera honek 2016ko ekainean txosten bat igorri zuen Foru Komunitateko Administrazioak informatikaren kudeaketarako daukan antolamendu-egiturari buruz. Hartan azaltzen zen Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak koordinatzen eta kudeatzen dituela Nafarroako Gobernuko departamentuen informazio-sistemekin eta informatikarekin lotutako zeregin guztiak. Hori dela eta, galdetegia zuzendaritza horri bidali genion, eta erantzunak aztertuta honako ondorio hauek atera ditugu:

- Departamentuen edo haien atalen araberako prozeduren eta estrategien eskuliburuak badaude, baina ez dago eskuliburu bateraturik, Foru Komunitateko Administrazioaren informatikaren kudeaketaren antolamendu-egituraren ondorioz; izan ere, egitura horren ezaugarria da kudeaketa hura osatzen duten departamentuetan deszentralizatuta dagoela.

- Informazioaren segurtasun-politikari buruzko jarraibide batzuk badaude, baina ez dago horri buruzko dokumenturik, formalki onetsi denik.

- Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuak eta Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Erregelamendua onesten duen 1720/2007 Errege Dekretuak besteak beste honako betebeharrak zehazten zituzten: segurtasunaren arduradunak izendatzea, aldizka auditoriak egitea, segurtasunari buruzko agiriak egitea, aipatutako eskemari eta Elkarreragingarritasuneko Eskema Nazionalari egokitzeko agiriak egitea, datu pertsonalen fitxategiak inskribatzea, eta abar.

Horri dagokionez, Nafarroako Gobernuko departamentu batzuek araudiak eskatutakoa bete dute, baina beste batzuk oraindik ere prozesu horretan daude, aipatutako araudiak ezarritako epeetan ezarritakoa gorabehera.

- Departamentuek ez dizkiote tokiko sarearen eta aplikazioen erabiltzaileen bajak beti azkar eta modu egokian komunikatzen Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari.

- Informazioaren jarraitutasunerako eta berreskurapenerako plan batzuk badaude informazio-sistemen azpiegiturarako, baina ez daude formalki onetsita; aplikazioetarako, berriz, halakorik ez dago.

Gure gomendioak:

- *Informazioaren segurtasun politikari buruzko agiri bat formalki onestea.*
- *Aipatutako errege dekretuetan jasotako lege-betekizunak betetzea.*
- *Departamentuek, behar den garaian, Informatika eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari azkar eta modu egokian komunikatzea tokiko sareko eta aplikazioetako erabiltzaileen bajak.*

- *Informazio-sistemen azpiegituren jarraipenerako eta berreskurapenerako planak onestea, eta, halaber, modua dagoen kasuetan, aplikazioetarako planak egitea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

1. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN ETA HAREN ENPRESA PUBLIKOEN PUBLIZITATE INSTITUZIONALA ETA TURISMOKO PUBLIZITATEA KONTRATATZEA

2017ko apirilaren 12an, Kontuen Ganberan eskaera parlamentario bat erregistratu zen, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren ekimenez, zeinean eskatzen baitzen Nafarroako Gobernuaren 2016ko publizitatearen kontratazioa azter zedila, berariaz publizitate instituzionalarekin eta turismoarekin zerikusia zuena, bai eta enpresa publikoena ere.

Zehazki, eskatzen zen azter zedila ekitaterik ba ote zegoen Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalaren eta turismoko publizitatearen gastuak hedabideetan banatzerakoan, eta, halaber, gastu horiek araudiaren arabekoak eta enpresa publikoen gastuen ekitatearen logikaren arabekoak ba ote ziren.

Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionala eta turismoko publizitatea

Foru Komunitateko Administrazioaren publizitate instituzionalaren eta turismoko publizitatearen gastuak "publizitatea eta propaganda" izeneko kontzeptu ekonomikoan sartzen dira. Azken hamar urteetan, honako hau izan da ondasun arrunten eta zerbitzuen 2. kapituluko gastuaren, Nafarroako Gobernuaren publizitatearen eta propagandaren arloko gastuaren eta publizitate instituzionalaren eta turismoko publizitatearen gastuaren bilakaera:

	(euroak, milioitan)									
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016
Publizitate- eta propaganda-gastua	10,39	11,40	9,36	3,91	3,18	1,93	1,77	1,83	1,88	1,69
Parlamentuaren eskaeraren gastua	6,31	6,88	5,38	2,82	2,35	1,41	1,23	1,40	1,33	0,98

Publizitatearen eta propagandaren arloko gastuak 1,69 milioikoak izan dira 2016an, jaitsiera oso nabarmena, ehuneko 84koa, izan ondoren.

Parlamentu-eskarian berariaz eskatutako gastuei dagokienez, ikusten da 2007-2016 aldian jaitsiera nabarmen bera gertatu dela (ehuneko 85ekoa), eta 2016an gastu horiek ez direla iristen ezta milioi bat euroko kopurura ere.

Jaitsiera horiek justifikatuta daude, hein batean, aztertutako urteetako testuinguru ekonomikoarengatik, zeren eta aldiaren hasieran krisi ekonomikoa oraindik ere hasi gabe baitzegoen; gainera, gastu horien barruan Osasunaren eta beste kirol entitate batzuen babesletzatik heldutakoak sartzen ziren; halakorik ez dago gaur egun.

Nafarroako Gobernuaren publizitate instituzionalaren eta turismoko publizitatearen gastuen bilakaera aztertu dugu, bai eta haiek adjudikatzeko modua eta aplikatzekoa den araudiarekiko egokitasuna ere.

Ondoren, egindako lanetik ateratako ondorio nagusiak azalduko ditugu:

- 2016ko gastuak, berriaz publizitate instituzionalera bideratutakoak, 731.063 eurokoak izan ziren; turismoko publizitatearenak, berriz, 248.258 eurokoak. Guztizkoaren ehuneko 96,3 bi esparru-akordioen bitartez kudeatu ziren (bata iragarki arruntetarako eta bestea espazioak eta publizitate-euskarriak kontratatzeke), eta gainerako ehuneko 3,7a prozedura negoziatu edo irekien bidez adjudikatu ziren, zenbatekoaren arabera, sormenarekin eta diseinuarekin zerikusia duten alderdietarako.

- Gastu horiek erregulatzen dituen araua azaroaren 11ko 1/2003 Foru Agindua da, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren publizitate instituzionala kontratatzeke jarraibideak ezartzen baitira; agindu horretan, gastuak hedabideen artean banatzeko irizpideei dagokienez, ez dira hedabide digitalak berriaz publizitaterako erabiltzekeak diren kanal bezala, eta idatzizko prentsa, irratia eta telebista baizik ez dira aipatzen.

Arau hori onetsi zenean hedabide digitalen garrantzi handirik ez zuten, baina gaur egun herri-tarrek asko erabiltzen dituzte. Alabaina, araua ez da gaurkotu, informazioa jasotzeko orduan ger-tatu diren ohitura horiek kontuan hartzeko.

- Egindako bi esparru-akordio berrikusi ditugu, 1.275.000 eta 130.350 euro egiten dutenak (BEZik gabe), bai eta prozedura negoziatu bat ere, zeina esparru akordioetako baten baldintzen arabera egin baita. Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu ezen, oro har, aplikatzekeoa den araudia bete egin dela, bai eta hartan jasotako banaketa-irizpideak ere.

- Honako hau izan zen publizitate instituzionalaren eta turismoko publizitatearen kasuan 2016an erabilitako kanalen artean izan zen gastu-banaketa:

	(eurotan)		
Publizitate instituzionalen kanalen arabeko gastua	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Prentsa	331.471	410.276	24
Irratia	150.133	140.102	-7
Tokiko aldizkariak eta aldizkari nazionalak	26.554	43.304	63
Digitalak	85.257	26.973	-68
Zinema	11.979	13.649	14
Telebista	39.753	10.473	-74
Beste euskarri batzuk	16.258	52.343	222
Partikularrek emandako zerbitzuak (sormena eta diseinua)	151.526	33.944	-78
Publizitate instituzionalaren gastua, guztira	812.932	731.064	-10

Turismo-kanalengatiko gastua	2015	2016	2016/2015 aldea (%)
Irratia	109.081	128.433	18
Eguneroko prentsa	109.632	70.801	-35
Aldizkariak eta digitalak	293.934	49.024	-83
Turismoko publizitatearen gastua, guztira	512.647	248.258	-52

Publizitate instituzionalaren arloko gastua, 2016an 731.064 eurokoa izan zen, eta ehuneko hamar jaitsi zen 2015ekoaren aldean; prentsaarena da gastu handiena ekarri zuen kanala, guztizkoaren ehuneko 56 baita; irratiaren egindakoa, berriz, guztizkoaren 19 izan da. Nabarmenezkoa da sormenerako eta diseinurako partikularrek emandako zerbitzuek ehuneko 78ko jaitziera izan zutela; telebista-gastuak, berriz, ehuneko 74koa, eta hedabide digitalena, azkenik, ehuneko 68koa. Bestetik, prentsa idatzian, aldizkarietan, zineman eta bestelako euskarrietan egindako gastuak gora egin zuen.

Turismoarekin lotutako publizitateak 248.258 euroko gastua izan zuen, 2015ekoaren aldean nabarmen –ehuneko 52– jaitsi ondoren; gastu handiena ekarri duen kanala irratiarena da, guztizkoaren 52 baita; paperezko prentsak, berriz, ehuneko 26ko gastua eragin du. Kasu honetan, aldizkarietan eta idatzizko prentsak egindako publizitateak ehuneko 83ko eta 35eko jaitziera izan du, hurrenez hurren.

Hedabidearen araberako gastu zehatza, bai publizitate instituzionalekoa bai turismo publizitatekoa, Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atarian argitaratzen da, eta honako esteka honetan kontsulta daiteke:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/es/open-data/datos/publicidad-institucional-2016>

Ondoren, web-orri horretan kontsulta daitekeen informazioaren laburpen bat erakusten dugu:

2016an egindako publizitate instituzionaleko kanpaina nagusiak

Deskribapena	Zenbatekoa
Indarkeria matxista	72.237
Errenta	65.825
Txikizkako merkataritza	59.042
Euskarari buruzko sentsibilizazioa	55.307
Hitzordu medikoak	52.283
Nafarroaren Eguna	50.474
Etxebizitzaren alokairu-poltsa	49.770
"Publikoa aukeratu" aurrematrikula-kanpaina	49.258
Mecna	40.158
Euskaraz ikasi (helduen euskalduntzea)	32.167
Kultur	23.361
Desio osasungarri egokiak (osasun publikoa)	18.454
Koloneko minbizia	16.788
Bakearen eta Bizikidetzaren Jardunaldiak	14.538
Nafarroako Erregeen Omenaldia	11.991
Guztira	611.653

Prensa idatzian egindako gastuaren xehakatzea

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
Diario de Navarra	239.031	7.255	239.031
Diario de Noticias	130.743	7.259	138.002
Gara	28.475	3.993	32.468
Berria	12.027	3.993	16.020
La Vanguardia	0	7.260	7.260
Heraldo	0	7.260	7.260
El Correo	0	7.260	7.260
Diario Vasco	0	7.260	7.260
Gupo Noticias, EAE: Deia-D.Noticias Alava-Gipuzkoa	0	7.260	7.260
Diario La Rioja	0	6.000	6.000
Sud Ouest	0	6.000	6.000
Idatzizko prentsan egindako gastua, guztira	410.276	70.801	481.077

Irratian egindako gastuaren xehakatzea

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
Cadena Ser	50.322	42.669	92.991
Onda Cero	39.125	15.000	54.125
Cope	36.705	15.000	51.705
Euskalerría Irratia	11.300	13.903	25.203
Xorroxin Irratia	2.649	4.000	6.649
Radio Euskadi	0	12.937	12.937
Cope Euskadi	0	3.200	3.200
Onda Vasca	0	7.260	7.260
Bilboko Radio Popular	0	5.000	5.000
Onda Cero Bilbao	0	4.850	4.850
Radio Nervión	0	4.615	4.615
Irratian egindako gastua, guztira	140.102	128.433	268.535

Aldizkarietan egindako gastuaren xehakatzeara

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
Revista On	0	7.260	7.260
Conocer Navarra aldizkaria	0	7.260	7.260
La Vida Linda MK Noticias	0	6.118	6.118
Conde Nast-Traveler	0	5.225	5.225
Mundo Pirineos	0	4.598	4.598
Víctimas del Terrorismo fundazioaren aldizkaria	4.598	0	4.598
Mailope Tipi Tapa	3.345	0	3.345
Sector Ejecutivo	3.223	0	3.223
Guaixe	3.143	0	3.143
Anuario Navarra Capital	0	3.025	3.025
AEHN	3.025	800	3.825
Negocios de Navarra	2.733	0	2.733
Congresos y convenciones España 2016	0	2.662	2.662
Revista hostelería Navarra	0	2.511	2.511
Plaza Nueva	2.416	0	2.416
Anapeh	0	2.139	2.139
Calle Mayor	2.093	0	2.093
La Voz de la Ribera	2.087	0	2.087
Entreto2 Tierra Estella	2.074	0	2.074
Ze berri	2.057	0	2.057
Al revés Huarte/Zizur	1.859	0	1.859
Birdwatch	0	1.743	1.743
Mendixut	1.656	0	1.656
La Voz de la Merindad	1.586	0	1.586
Cabalgata reyes - Iruña	1.500	0	1.500
Entreto2 Valdizarbe	1.497	0	1.497
Ahora Zona Media	1.452	0	1.452
Olentzero aldizkaria - Iruña	1.210	0	1.210
Turismo Rural-Navartour	0	847	847
Periódico del estudiante	0	835	835
Entorno Zona Media	605	0	605
Entorno Valdizarbe	484	0	484
Tudeocio	661	0	661
Aldizkarietan egindako gastua, guztira	43.304	45.024	88.328

Hedabide digitaletan egindako gastuaren xehakatzeari

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
diariodenavarra.es	16.603	0	16.603
noticiasdenavarra.com	10.370	0	10.370
caminosantiago.com	0	4.000	4.000
Hedabide digitaletan egindako gastua, guztira	26.973	4.000	30.973

Telebistan egindako gastuaren xehakatzeari

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
Navarra TV	7.474	0	7.474
Xaloea	1.499	0	1.499
Erdialdea	1.499	0	1.499
Telebistan egindako gastua, guztira	10.473	0	10.473

Beste hedabide batzuetan egindako gastuaren xehakatzeari

	Publizitate instituzionala	Turismoa	Guztira
Markesinak-Mupiak	30.849	0	30.849
Zinema	13.649	0	13.649
Inprimakiak	8.037	0	8.037
Kanpoko aldeetan	7.197	0	7.197
Hiri-garraioa	4.560	0	4.560
Hiriarteko autobusen errotulazioa	1.700	0	1.700
Beste hedabide batzuetan egindako gastua, guztira	65.992	0	65.992

Nafarroako enpresa publikoen publizitatean egindako gastua

Enpresa publikoen publizitatean 2016an egindako gastua 164.204 eurokoa izan zen, eta honela banatu zen.

Enpresa	Gastua	Portzentajea/ gastu guztia	Publizitate-kontratazioen kopurua
INTIA	74.399	45	44
NICDO	22.380	14	30
SODENA	16.305	10	3
Tuterako Nekazaritza Elikagaien Hiria	13.585	8	13
NASUVINSA	11.056	7	7
CEIN	7.104	4	5
NILSA	5.045	3	7
TRACASA	4.885	3	9
CNAI	3.082	2	2
GAN	6.363	4	20
Guztira	164.204	100	140

Gastu horren banaketa, kanalaren eta hedabidearen arabera, ez da argitaratzen, eta gauza bera gertatzen da Nafarroako Gobernuarekin. Enpresa publikoei eskatu genien xehetasunak emateko, eta honako hau da emaitza:

	Batez bestekoa	Kontratazioen kopurua	Gastua (eurotan)
Prensa	Diario de Navarra	21	29.731
	Diario de Noticias	17	32.754
	Revista Concejo	7	2.735
	La voz de la Ribera	4	955
	Plaza Nueva	4	1.200
	Magazine Tudeocio	2	300
	Prensa nacional Alimarket	1	2.492
	Anuario Navarra Capital	1	1.530
	Revista Origen	1	1.500
	Guía Ilustrada Navarra	1	1.500
	El Mundo	1	1.000
	Errege Kabalgataren liburuxka	1	1.000
	Al revés Zangoza, Sarriguren, Zizur, Burlata	1	720
	Conocer Navarra aldizkaria	1	600
	Ze berri aldizkaria	1	450
	Prensa nacional Interempresas	1	414
	Revista Hostelería Navarra	1	350
	Calle Mayor	1	270
	Revista Mancomunidad Izaga	1	225
	Merindad	1	225
	Entretodos Tierra Estella	1	202
	Mendixut	1	198
	Entretodos Valdizarbe	1	182
	Ttiipi Ttapa	1	180
	Guaixe	1	169
	Mailope	1	135
	Entorno Zona Media	1	135
Entorno Valdizarbe	1	127	
Prensa, guztira	77	81.279	
Irratia	Onda Cero	11	9.120
	Cadena Ser	9	10.494
	Cope	8	7.244
	Europa FM	2	2.388
	Radio Euskadi	2	1.900
	Euskadi Irratia	2	1.110
	Onda Vasca	2	1.100
	Es Radio	1	414
Irratia, guztira	37	33.770	
Hedabide digitalak	Navarra.com	2	2.520
	Google Adwords	2	3.894
	Alimarket	2	720
	Twitter ADS	1	2.476
	Canaldis	1	2.000
	Diario de Gastronomía	1	1.500
	Navarra Capital	1	1.450
	Financial Food	1	1.000
	Retail Actual	1	1.000
	Interempresas	1	720
	EITB.EUS	1	500
	Facebook ADS	1	434
	Pamplona actual	1	300
Zona Media TV.com	1	200	
Hedabide digitalak, guztira	17	18.714	
Telebista	EITB	3	6.000
	Navarra TV	2	5.000
	Hamaika Telebista	1	1.500
Telebista, guztira	6	12.500	
Bestelakoak	Markesinak eta publizitate hesiak	2	13.434
	Aparkalekuetako txartelaren ifrentzua	1	4.000
	Bestelako hedabideak, guztira	3	17.434
Publizitate gastua, guztira	140	164.204	

Enpresa publikoen gastuaren ehuneko 50 prentsa idatzira bideratu zen, ehuneko 21 irratira, ehuneko 11 hedabide digitaletara eta ehuneko zortzi telebistara.

Gastu horiek aztertuta, egiaztatu ahal izan dugu kontratazio guztiak 15.000 eurotik beherakoak direla; hori dela eta, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen arabera, kasuan kasuko fakturaren bidez izapidetu ahal ziren, eta horixe izan zen 140 kontrataziotatik 138an erabili zen prozedura; beste biak prozedura negoziatua erabiliz adjudikatu ziren.

Gastuen lagin bat azertu dugu, guztira 36.285 euro egiten duten hamar espedientek osatua (zortzi zuzeneko adjudikazio bidez, 24.790 euroko balioarekin, eta beste giak prozedura negoziatuaren bidez, 11.495 euroko balioarekin); egiaztatu dugu ezen, oro har, enpresa publikoei arlo horretan aplikatzekoa zaien araudiaren arabera formalizatu eta izapidetu zirela.

Gomendatzen dugu egun dagoen araudia gaurkotzeko, publizitatea instituzionalaren jarraibideak zehazte aldera, eta hartan hedabide digitalak berriaz jasotzeko.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

2. ERANSKINA. ABERASTE BIDEGABEAREN EGOERAN KONTRATATZEA

2017ko maiatzean, Unión del Pueblo Navarro (UPN) eta Geroa Bai talde parlamentarioek eskari bana egin zuten, zeinetan funtsean honako alderdi hauek aztertzeko eskatzen baitzuten:

- “...Aztertzea, denbora-balioaren ikuspuntutik eta adjudikazio-prozeduraren ikuspuntutik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren (O-NOZ) eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI) kontratu guztiak antolamendu juridikoaren araberakoak diren, gaur den egunean, 2017an.
- Aberaste bidegabearen egoeran dauden O-NOZen eta NOPLOIren kontratuen kasuan, ekonomikoki baloratzea egoera horrek nolako galera dakarkion Foru Ogasunari...”.

UPN taldeak eskatzen zuen, gainera, berariaz azter zitezela a) apartatuan aipatutako alderdiak, Nafarroako Ospitaleguneko sukalde-zerbitzuaren kudeaketarako kontratuari dagokionez, 2016ko irailaren 23tik 2017ko maiatzera, eta azterketa ekonomiko konparatibo bat egin zedila aipatutako zerbitzuak agertoki desberdinetan izan zezakeen kostuari buruz. Bestetik, Geroa Bai taldearen eskariak 2010. urtea aipatzen zuen azterketaren hasiera-data gisa, a) apartaturako zein b) apartaturako.

Auditoria-lana gidatzen duten arauak kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuak ematen zituen prestazioak aztertzen jarraitu dugu, nahiz eta kontratuaren indarraldia 2017ko maiatzaren 31n amaitu zen.

Ez dugu azterketa ekonomiko konparatiborik egin Nafarroako Ospitaleguneko sukaldeen kudeaketa-zerbitzuaren kostuari buruz, eskarian deskribatutako agertoki desberdinetan, zeren eta Ganbera honek 2014ko ekainean txosten bat egin baitzuen non kalkulu horiek egiten baitziren, kudeaketa mistoari dagokiona izan ezik; izan ere, azken hori ezin izan zen egin behar adina informazio ez edukitzeagatik.

Azkenik, aipatu behar dugu indarraldia amaituta zuten baina haien prestazioak 2017ko maiatzaren 31n oraindik ere ematen ziren kontratuetako gastu metatua eman digutela, baina Ganbera honek ezin izan du baloratu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zenbateko galera ekonomikoa eragin dion.

Gure lanaren norainokoa Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartze Orokorren Zerbitzuak emandako informazioa izan da, arestian aipatu dugunez, kontratua amaituta izan baina ematen jarraitu diren prestazioei dagokienez, kasuko kontratazio-prozedura izapidetu gabe.

Lortutako datu nagusiak honako hauek dira:

Departamentua	Kontratu kopurua	Kontratuaren amaieratik 2017ko maiatzaren 31ra arte metatutako gastua	Kontratuaren amaieratik 2017ko maiatzaren 31ra batez beste iragan den denbora
Osasuna	48	32.610.448	748*
Eskubide Sozialak	19	12.585.427	817
Garapen Ekonomikoa	41	3.479.654	1.033
Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia	23	1.288.371	165
Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanak	17	1.178.569	411
Kultura, Kirola eta Gazteria	3	81.673	150
Ogasuna eta Finantza Politika	2	3.618	77
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	1	0**	149
Hezkuntza	1	0**	150
Guztira	155	51.227.760	761

* Kasu batean ordaindutako zenbatekoa 212.000 eurokoa izan zen, eta ez digute jakinarazi zenbat denbora iragan den kontratua amaitu zenetik.

** Kasu horietan, aipatutako datan inongo zenbatekorik ez da ordaindu.

Informazio hori aztertuta, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- 2017ko maiatzaren 31n 155 kontratu zeuden aberaste bidegabearen egoeran. Prestazio horietatik ehuneko 31 Osasun Departamentuari zegozkion; ehuneko 26 Garapen Ekonomikorako Departamentuari; ehuneko 15 Lehendakaritza Departamentuari; ehuneko 12 Eskubide Sozialetako Departamentuari, eta ehuneko 11 Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuari.

- Kontratua amaitu zenetik 2017ko maiatzaren 31ra arte jasotako prestazioek guztira 51,23 milioi euroko gastua eragin dute; horietatik, ehuneko 64 Osasun Departamentuari dagozkio eta ehuneko 25, berriz, Eskubide Sozialetako Departamentuari.

- Nafarroako Gobernuan, aberaste bidegabearen egoeraren batez besteko iraupena 761 egunekoa da (2,1 urte), baina departamentuen datuak desberdinak dira: hiru departamentutan bi urte baino gehiago dira (Garapen Ekonomikorako Departamentua, Osasun Departamentua eta Eskubide Sozialetakoa); Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuan urtebetekoa baino luzeagoa da, eta gainerakoetan iraupena urtebetetik beherakoa da.

- O-NOZen eta NOPLOIren kontratuetako alderdi azpimarragarrienak –haien azterketa berriaz eskatzen zen eskari parlamentarioan– honako hauek dira:

a) Osasun Departamentuaren 48 kontratuetatik, 44 O-NOZi dagozkio, lau NOPLOIri eta bat departamentuari berari. Honako hauek izan dira O-NOZen eta NOPLOIn egoera horretara iristeko arrazoiak:

Kontratu kopurua	Arrazoa	%, guztizkoaren gainean
36	Espedientea izapidetzen atzeratzea (kontratuaren baldintzak aldatzea beharizan berriei egokitzeko, zerbitzua nazioartekotzea, lizitazioei aurkeztutako errekurtsoak eta abar)	75
7	Lizitatzeko dago, araudia onetsi delako	15
3	Zerbitzua barnean antolatzeke dago	6
2	Izapidetze administratiboa eman gabe deklaratu da; lizitazio berria	4

b) Kasu guztietan, ondasunen edo/eta zerbitzuen hornitzaileak lehengo bera izaten jarraitzen du, salbu eta O-NOZen bi kontratuen kasuan (Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta Tuterako osasun barruti bateko osasun etxe baten mantentze orokorra), zeinetan enpresak uko egin baitzion.

c) Ondasun edo/eta zerbitzuen emateak bera izaten jarraitzen du kasu guztietan.

d) O-NOZen sei kasutan (garbiketa zerbitzu zentralak, Tuterako barrutiko mantentzearen aipatutako bi kasuak eta osasun-garraioari dagozkion hirurak), prezioa lehen gorantz eginez ordaindutakoaz beste bat da.

Hiru kasuetan, osasun-garraioa aldatu egin zen, zeren eta langileen hitzarmen kolektiboari baldintza berriak aplikatu baitzizkion; O-NOZen zerbitzu zentralen eta Osasun Departamentuaren beraren garbiketaren zenbatekoak gora egin zuen, enpresaren eskakizunak tarteko; Tuterako Reina Sofia Ospitalearen eta haren barrutiko oinarrizko osasun laguntzako zentron mantentzeari dagokionez, arrazoiak izan zen hitzarmen kolektiboan osagarri berri bat onetsi zela, zeinak eragin baitzuen enpresak zenbateko handiagoa eskatzea.

e) Prestazio horien ordainketa kudeatzeko prozedura honako hau da: faktura bat jaso ondoren, kasuko kontratua amaituta, O-NOZen kasuan kasuko antolamendu-egituraren zuzendaritzak hura ordaintzeko baimena eskatzen du.

Araubide Juridikoaren Zerbitzuak txosten bat egiten du eskaera horri buruz, eta onespina ematen dio fakturak ordaintzeari, jurisprudentziaren doktrinan oinarrituta, alegia, Administrazioa zerbitzua ematen duenaren kontura aberasteko debekuan, baldin eta zerbitzu hori eman behar baldin bada dagokion kontratazio prozedura jarraitu ez delako.

Txosten horrekin, O-NOZen kudeatzaileak ebazpen bat egiten du, faktura hori ordaintzeko baimena emanez.

- O-NOZen hamar kontratuk, 19,25 milioi euroko gastu metaturekin, eta NOPLOIren kontratu batek, 311.498 euroko gastuarekin, osatutako lagin bat aztertu dugu –departamentuaren egoera horretako prestazioen gastuaren ehuneko 70 egiten du, eta Nafarroako Gobernuaren guztizko gastuaren ehuneko 42–.

Aurreko puntuan adierazitako alderdi guztiez gainera, egoera hori eragin duten arrazoiak aztertu ditugu, bai eta kontratua amaitu ondoren ordaindutako lehenengo faktura eta 2017ko maiztzeke faktura ere.

- Honako hauek dira aztertutako laginaren alderdi garrantzitsuenak:

Kontratua	Erakunde	Metatutako zenbatekoa	Iraupena (egunak)	Arrazoa
Egonaldi ertainetarako eta zainketa aringarrietarako osasun laguntza*	O-NOZ	5.908.173	150	Itun Sozialak arautzen dituen Foru Legea onesteko zain
Konplexutasun txikiko kirurgiako osasun laguntza*		1.935.966	150	
Paziente akutuentzako osasun laguntza		72.242	150	
Nafarroako Ospitaleguneko elikadura		3.261.472	249	Zerbitzuaren zati baten lizitazioa eman gabe gelditzen da; zerbitzuak hartzen du bere gain
Tuterako Reina Sofia Ospitalearen elikadura eta kafetegia		2.069.560	882	Lizitazioa eman gabe, lizitazio berria emateko zain
Zahar-etxeetako eta desgaitasuna dutenentzako laguntza-zentroetarako inkontinentzia-xurgagaien hornidura eta banaketa		1.826.987	516	Esparru-akordio berrirako prestatzen ari den kontratazio espedientea
Laguntza neuropsikologikoko, neuropsikiatriako eta terapia okupazionalako programa		876.677	1.246	Zerbitzua barneratzea
Iruñerriko osasun-garraioa		1.558.119	150	Kontratazio espedientea egiteko atzerapenak, kontratuaren xedea zehaztu gabe egoteagatik
Lizarrako eta Tafallako eskualdeetako osasun-garraioa		560.478	150	
Baztan-Bidasoa-Altsasu eskualdeko osasun-garraioa		873.470	150	
Bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programako mamografoen mantentzea	NOPLOI	311.498	881	Teknologia aldatetaren balorazioa dela-eta lizitazioan izandako atzerapenak

* San Juan de Dios Ospitalearekiko Ituna.

Informazio hori aztertuta, honako ondorioak atera ditugu funtsean:

a) Kontratuen ehuneko 73an (11tik zortzi), egoera horren arrazoa da espedientearen lizitazioan gertatutako atzerapena, azaldutakoak direla eta.

b) Ez da aldaketarik izan ez hornitzailean, ez eta prestazioan ere, aztertutako kasu bakarrean ere.

c) Ez da aldaketarik izan fakturatutako zenbatekoan, aurrez zeuden kontratuekin alderatuta, salbu eta osasun-garraioarekin lotutako hiru kasutan, zeinetan zenbateko hori handitu baita. Zehazki, guztira kontratu horietan aurreikusitakoa baino 114.620 euro gehiago ordaindu dira. Igoera horren arrazoa dira zerbitzu hori 2017ko urtarriletik ematen duten langileen ordainsari-baldintzak arautzen dituen hitzarmenean izandako aldaketak. Inguruabar hori, izan ere, ez zegoen aurreikusita aurrez prestazio horiek arautzen zituzten kontratuetan.

d) Jasotako ondasun edo/eta zerbitzuen ordainketa aurrez azaldutako prozedurari jarraituz egin da.

Horri dagokionez, Ganberak uste du kontratazio publikoari buruzko araudiak ez duela aukerarik ematen kontratu baten exekuzioarekin jarraitzeko hura amaitu denean; horrek, izan ere, berekin ekarriko luke gardentasun, publikitate eta lehia printzipioak urratzea, kontratuaren egiazko epearen urratze bat izateaz gainera.

Halere, osasunaren arloko legediak gaikuntza ematen dio O-NOZi ebazpen ziodun bat hartzeko, zeinak, kontratua amaitu den kasuetan eta zerbitzua eteteko arriskuaren aurrean, bertutuko baitu Nafarroako osasun zerbitzuen zorroan jasotako nahitaezko zerbitzu horiek eman eginen direla, betiere kontratistaren adostasuna dagoenean.

Interes orokorra bermatzen duen egoera bat da, eta kontratazio publikoaren arloko arauditik kanpo dagoena, zeren eta hari konponbidea emateko legezko biderik ez baitago. Hori dela eta, zorroko nahitaezko prestazioak direnean, zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko, gerta daiteke

justifikatuta egotea zuzenbide zibiletik edo osasun legeditik heldutako beste formula batzuetara jotzea arazoari konponbidea emateko, betiere muga batzuk ezarrita, Administrazioak lizitazioaren arauak saihets ez ditzan.

Gomendatzen dugu kontratuak behar den denboraz izapidetzea, adjudikazio-hartzaile berriak prestazioa has dezan behin kontratuaren iraupen osoa amaitu denean, aberaste bidegabeko egoerak gerta daitezzen saihestuz.

Iruñean, 2017ko azaroaren 16an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

